


idazleak:

patxi zubizarreta jon arretxe



txema flores&araba gerran. 1936
amarika aretoa
gai toxikoak II
enara herran igerilaria

hamar mezu eta dei bat. freexkue. korrika. literatura.
patxi zubizarreta. artea. pepo salazar. historia. unai gartzia.
bidaiak. xabier errasti. sukaldaritza. denbora-pasak...

V
G
E
U
GASTEIZKO
EUSKALDUNON
ALDIZKARIA

etxe



ARROPA PREZIO

EZIN HOBEAN

- 2 eta 3 kapako
- TXAMARRAK
- MENDIKO MATERIALA
- kalerako arropa...



ZURE EROSKETA EUSKARAZ
EGITEKO AUKERA PAREGABEA

Astelehenetik larunbatera
goiz eta arratsaldez IREKITA

KORRERIA KALEA, 118-BEHEA
TEL/FAX.: 945 135 859 / mendidenda@yahoo.es

AURTEN... OPARI MAGIKOA!

DEITU
ORAIN!

902 45 12 12

Eska itzazu zure opariak TRUKen KATALOGOan

TRUK
902 45 12 12
TRUHEA - EUSKAL HERRIA

txan magoa

LOR EZAZU
TXAN MAGOAREN
MAGIA
KITa!

KUTXA MAGIKOA

Sar ezazu TXAN barruan eta
desagertu egingo da!

BIDEOA

TXANek magia egiten irakatsiko dizu!
Ikas itzazu magoen trikimailu guztiak!

36€

bidalketa gastuak
barne

**TXANen
KAMIXETA**

Neurriak:
4-6-8-10 urte

**MAKILATXO
MAGIKOA**

Magia egiteko
ezinbestekoa!



karramarro
euskal herria
basque country

2003 ona izan dezazuela!

GAINERA...

- Han-hemenka (4-7. orr):

Iritzian, Itziar Alduntzin eta Ramon Gaztelumendi;

kaleak dio; araba bixotzian (kolaboratzaile

berria!; abarrots); entzun, irakurri, ikusi,...

- Euskaltasunean lagun (14. orr)

- 10 mezu eta dei 1, freexkue, korrika (15-17. orr)

- KulturAisialdiari so (26-38. orr):

AGENDA (33); IDAZLEEN GURPILA-patxi zubizarre-

ta; eskurik ez eskuan (26-27); HISTORIA ZERTZELA-

DAK-unai gartzia: 'inmigratioari aurre egiteko sor-

turiko gune periferikoak' (28-29); ARTE TXOKOA-

pepo salazar artista (30-32); naturaren isladak;

bidaia (34); sukaldaritza (35); denbora-pasa;

komikia; geu-ren eskaintza, gomendioa...



8-9.
orr.

AMARIKA
ARETOAren aferaz,
iñaki larrinberekin




10-13.
orr.

idazleak mintzo: PATXI ZUBI-
ZARRETA, JON ARRETXE.
araba gerran: TXEMA FLORES



18-22.
orr.

gure inguruko
GAI TOXIKOAK
(2. atala)



24-25
orr.

ENARA HERRAN
igerilaria

>GEU

GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkari taldeak egina, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a.

Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@gm.es

Zuzendaria:	estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkari batzordea:	josune velez de mendizabal, edorta sanz, edurne begiristain, estitxu breñas eta david alvez
Kazetariak:	leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain, josune velez de mendizabal
Argazkiak:	edorta sanz/ kolaboratzailea: hodei bueno
Bestelako irudiak-bilaketa:	e.b.z.
Testuen orrazketa-zuzenketa:	e.b.z.
osaketak:	patirke sanz eta david alvez
Maketa:	io grafix
logoa:	iñigo sarasola
komikia:	iñaki zorrakin, abarrots, itziar alduntzin, ramon gaztelumendi, unai gartzia, patxi zubizarreta
Kolaboratzaileak:	arte eta lanbide eskola, diocesan- mendizorroztako ostalaritza eskola, xabier errasti 'jerras', ania ibisate, oskar ugarte eta luma aldizkaria
Publizitatea eta Banaketa:	edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila:	edurne begiristain, e.b.z.,
Inprimategia:	Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua:	2.500


LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Azala ...



Denetiko gaiek eta lagunek
janzten dute 2003ko
lehen ale hau.



itziar alduntzin

Euskadi Gaztea-ko esataria eta Sorginen Laratza-ko kide ohia

FRIBOLOKI

"Besteetaz barre egiteko lehenbizi norbereraren buruaz egiten jakin behar da". Premisa honek ba al du lekuri Euskal Herrian?

Nere lanean egunero ikusten dudana gauza bat da. Alegia, euskal pertsonaje zein egoerei buruz barre egitea ez da oso ohikoa. Espainiako erregea parodiatu daiteke, Zapatero jaunaz barre egin dezakegu, aldiz, gure politikari, musikari, idazleak "ikutuezinak" dira herri xelebre honetan. Akaso noiz edo noiz ikusi edo entzun izan dugu hauen inguruko graziaren bat baina ongi asko zaindutako txistea izanena da, eta hartzaileak xehetasun ikaragarriaz analizatuko duena gainera. Ene aburuz, konplexu kontu bat da. Besteetaz barre egiten ikasi dugun bezala, zergatik ez gure buruaz?

Duela hilabete euskal prentsan irakurritako esaldi

honek kontatzen ari naizen honetaz zer pentsa handia eman zidan: "Euskal Herriak bizi duen egoeraren aurrean ezin gara fribolizatzen hasi". Hara! Justu kontrakoa pentsatzen dut nik ba! Euskal Herrian bizi naiz ni ere, euskalduna naiz eta egoera honen aurrean aurrera egiteko bide bat da FRIBOLITATEA, baina, noski, graziarekin.

Zergatik ez da egoera fribolizatze momentua? Nik dakidala, eta 76koa naiz, egoera politikoa herri honetan aspalditik da larria, eta nik dakidala gizakiok, umorea maneiatzen dugu larritasunean ez itotzeko salbazio gisa. Bestela Hollywood bidean den "Los lunes al sol" filma ikustea besterik ez dago. Edota beste adibide bat, Galiziarren ezbeharra; hori baino egoera larriagorik... eta hala ere, irratian entzun nituen galiziarrek beren egoerari jarritako kantak kantatzen. Eta horrek ez du esan nahi euren arazoa

serio hartzen ez dutenik.

Egoera larri baten aurrean, eta azken batean edozein egoeraren aurrean, umorea erabiltzeak ez du esan nahi errespeturik ez diozunik horri. Gauzak oso friboloki eta superfizialki aurkezteak ez dakar edukiekin ahaztea, edukia desdramatizatzea baizik. Egunero tele-informatibo bat ikustek (biolentzia eta desgrazia txute bat) edozein pertsona depresio sakon batean sar lezake; barre egin behar beraz, penaz ez hiltzeko.

Kitto, nahikoa mintzatu naiz, gauza bat esatea besterik ez dut: Euskadi Gaztea-ko Salgai magazina egiten dugunok terapia ezin hobea praktikatzen dugula: Umorea eta fribolitatega praktikatzen gurekin eta besteekin; eta horrekin, uste dut, jendeari goizak animatzea lortu dugula. Gonbidatuta zaude.

Negar egitea ona da barruak hustutzeko, baina barre egitea bezainbeste.



etxerat elkarteak

Euskara espetxeetan

Todo pres@ tendrá derecho a utilizar o hacer uso de su religión, cultura o idioma... dioen artikulua, lege modura irakur daiteke "legislación penitenciaria" izenburupean estatu espainiarrak, eta bereziki, justizia ministeritzak 1978an argitaratutako liburuxka gorrian. Hala ere, familia eta presoaren arteko komunikazio harremanetan, estatu espainiarreko legediaren horma pitzaduraz josita zegoela hamaika alditan salatu izan dugu. Urteen joanaz, pitzaduraren tamaina eta sakontasuna gehiagora joan da, preso eta herriaren arteko hizkuntz harremanak ere eten nahian ibili dira espainiar agintariak: komunikazioa murriztu, lagunak bisitatu ukatu... Azken finean, euskal presoaren aurkako eraso hauek, Euskal Herria bere osotasunean erasotzen dute, euskal biztanlego osoa. Baina, non dira euskal hizkuntza edonon eta mugarik gabe erabili behar den aldeko esamesetan diharduten erakundeak? Non dira, hizkuntza edonori bermatu beharko lioketen epaile eta arduradun politikoak?

Urte asko daramatzagu euskarak espetxeetan jasaten duen mesprezua salatzen. Hainbat ekimen dagoeneko bideratuak ditugu, eskubide honen bermatzea exijitzeko. Antza, ez nahi nahikoa. Agian, euskal eragileekiko harremana eta informazioa ez da egokiena izan. Ondorioz, euskarak mugarik gabeko erabilpena izan dezan, kontzientzia maila ez da behar adinakoa. Kontzientzia maila ez da behar adina "piztu" Euskal Herritik kanpo. Bereziki espainiar eta frantziar espetxeekiko.

Arestian genion modura, euskal komunikazioari espetxeetan mugak jartzen zaizkio: eskutitzak hilabete luzez "filtro eta itzulpen zerbitzuetatik" iragaten dira, euskal presoaren eskutetara iritsi aurretik. Telefono deiak mugatu eta moztu izan dira, lehen hitzak euskaraz direnean (Asier Etxeberriaren kasua, Valladolid-ko espetxean...). Euskal preso gehienak bisitak interbenituak izaten dira. Bisita hauetan, grabagailua aurrez aurre jartzen zaie. Maiz, gaztelaraz mintzatzea behartuak izan gara (Tenerifeko espetxean neronek gertatua). Ikasketak burutzeko euskarazko hautua egiten duten euskal presoek, trabak gehitu egiten zaizkie... Azken finean, euskal preso politikoa bi bider preso!

Amaitzeko, familiarrok, hizkuntza tarteko arazo izugarriak ditugu Euskal Herritik at. Guraso askok, frantsesa edo gaztelara arrotz dute, ezezagun. Arazo horietako bat, frantziar estatuko espetxeetara joan nahi izanaz telefono bidez hitzordua eskatzearena da. Telefono elkarrizketa nola eraman dezakegu hariaren beste aldean "bonjour" entzun ondoren?

Legiaren horma, orain gutxi pitzatua zen, urriaren 17an, horma erabat eroria da. Madrilgo Epaitegiak, euskal preso politikoei euskaraz mintzatu eta idazteko debekua luzatu die: "Muchas gracias", "esto va bien..." noiz arte? Danok gara kaltetuak, mugi gaitezen!!

Ramon Gaztelumendi,
Etxerat Elkarteak
bozeramailea

2002ri BEGIRA

2002. urtea amaituta garaia dugu balorazio orokorra egiteko. Beti da komenigarria atzera azken begirada egitea, ez ditzagun ahaztu gure hirian arlo guztietan gertatu gora-behera guztiak. Berauen balorazio orokorra egiteko, hiritarrei honen inguruan itaundu diegu.

BEATRIZ RIVERA
Administrari laguntzailea

- 2-"Skalextrik"a kendu izana, jende askoren kalterako, eta hezkuntza programa berriak.



Izenak Kokein

Eibarko taldea gurera ekarri genuen gure 10. Urteurrenean. Giro ona, jende ugari bildu ez bazen ere. Egun asko entzuten ari den rock talde honen soinu berriak zuzenean ezagutzeko parada izatearekin, bildutakoak pozik! Hurrengoan gehiago eta hobeto.



Zirrarak

Xabier Errasti 'Jerras' bidaia-riaren olerkiz jantzitako bidai diaporama gozagarriaz gozatu ginen abenduaren 17an (Geu-ren 10. Urteurreneko egitarauaren barnean). Kalitatea irudietan, testuetan eta musikan! Atsegina oso.



1.- Zer izan da 2002. urtean Gasteizen ikusi duzun gauzarik positibo edo txalogarriena?

2.- Eta zer litzateke zuretzat negatibo edo kritikagarriena?

VITORIANO GARCIA
Iubilatua

- 1- Salburuan edota Zabalganen gazte eta behardunentzat eraikitzen ari diren diruz lagundutako pisuak.
- 2- Geroz eta aparkaleku gutxiago ditugula hiri guztian zehar, batez ere erdialdean.

 **JAVIER LEORZA**
Gidaria

- 1- Etxebizitza berriak, oinarrizko eskubidea baita, eta hiriaren handitzea.
- 2- Udala orokorrean eta bertako administrazio eta zuzendaritza. Dirua hiri honetan bizi direnen onerako beharko litzateke erabili.



AIXONA SZ. DE OKARIZ
Ikaslea

- 
- 1- Mendizorrotzako modulu berria eta gazte-entzako programak (Gauekoak, esate baterako) orokorrean.
- 2- Kaleetan barrena diharduten obrak, jarri behar duten tranbia eta bus-bide berriak. Horrelako proiektuek benetako beharretarako dirurik ez dute lagatzen.



z kias %20

Hau dugu Gasteiz-
duen "ia-euskaldunen" pro-
portzioa; zaindu beharreko
kopuru garrantzizkoa euska-
raren etorkizunerako.

Honakoa eta beste zenbait gai aztertu ziren Sei Elkarteo kide Pablo Suberbiolak gure 10. Urteurreneko egitarauan emandako 'Urrats berriak hizkuntza berreskurapen lanetan' saioan. Interesgarria benetan eta partehartzea,



Entzun/Irakurri /Ikusi

Ikusi

Geu aldizkariak egitura aldatu du 10. urtemugan

'Geu aldizkaria' apuesta por la renovación de imagen y contenido tras diez años de andadura

Esta revista es la única publicación de carácter mensual escrita íntegramente en euskara en todo Álava

AMAIA GONZÁLEZ Gasteiz

▼ GASTEIZ

«Geu» ofrece más calidad y apuesta por autofinanciarse en su 10º aniversario

Irakurri

Susmoak eta dudak

"Genetikoki eraldatutako espezieek ekosistema apur dezakete"

"Teknologia berriak zalantza giroan ari dira garatzen; ez daki-gu zer ondorio izan ditzaketen"

(Oliver Todt, Zientziaren Filosofiako ikertzailea)

[Euskaldunon Egunkaria, 2002ko abenduaren 24an]

Entzun

"Euskara delakoak oso egitura sinplean, infinitibozko esaldietan, du bere oinarria"

(Radio Euskadi-ren

"El cocidito madrileño" saioan aterata, 2002ko abenduan)

Araba bixotzian

Ernesto Murillo 'Simonides'i agur esan, eta ongi etorria egiten diogu TMEOko kolaboratzaile ere Abarrots-i, urtebete ariko delarik gurekin Arabaren inguruko bere ikuspuntua alez ale irudikatuz.



ABARROTS

"Inork ez du
Amarika aretoa
itxi nahi,
Diputazioak
baino ez..."



iñaki larrinbe

iñaki larrinbe&amarika aretoa

leire lpz de aberasturi

argazkiak: edorta sanz

...Horrela laburbildu du Iñaki Larrinbe artista gasteiztarak Amari-
ka aretoaren inguruko
afera. Larrinbe hiriko erdialdean dagoen aretoa

ixteko erabakiaren kontra azaldu den artista tal-
dearen kidea da, eta horren bozeramaile
moduan hitz egin du GEUrekin. Arrazoiak bai-

noago aitzakiak eta botoak irabazteko saialdiak ikusten dituzte artistek Aldundiaren erabakiaren atzean, eta dagoeneko 6.500 sinadura bildu ditu taldeak Amerika aretoa zabalik jarraitzeko eskatuz egin dituzten ekitaldietan. Hile honetan garrantzitsuenak burutuko dute eta, Aldundiak aretoa otsailean ixteko mehatxua betetzen badu, azkena ere izango da.

Afera zaharra bihurtzen ari da, Aldundiaren Kultura Saileko ordezkariak Amerika aretoa ixteko asmoa agertu zutenetik urte eta erdi baino gehiago igaro baita. Gasteizko artisten erantzuna berehala etorri zen; gehienak kontra agertu ziren eta Aldundiaren iritzia aldatzeko lortzeko kanpaina bati ekin zioten. Amerika aretoak Gasteizen egiten den arte garaikidea erakusten zuen gehienbat, eta urte gutxitan erreferente bihurtu da hirian.

Egun kulturagintzak oraindik ez omen daki zergatik hartu duen Aldundiak erabaki hori. "Eman dituzten arrazoi ekonomikoak aitzakiak baino ez dira eta arrazoi kulturalik ez dago", adierazi du Larrinbek. Ixteak ekarriko dituen ondorioak, oster, argi ikusten ditu artista gasteiztarrek: "Aldundia erakusketa aretorik gabe geldituko da". Horrela, Kultura Sailak ez du izango bere erakusketak non egin, ekitaldiak non antolatu,...; eta hori horrela da, Artiumeko zuzendariak hala azalduta.

Artium-en eragina

Artium museoa zabaltzea Amerika ixtearekin zerikusia duen galdetuta, ez zela horrela izan behar erantzun du. Bilbon Guggenheim museoa eta Rekalde aretoa elkarbizi daitezkeela gogoratu du Larrinbek, "eta are gehiago, elkar osatu egiten dira, absurdua delako areto bat zabaltzen delako beste bat itxi behar izatea". Baina Gasteizko artistek azkenean "Artium-en guztia zentralizatuko dute, zulo beltz izugarri baten modura dena irentsiko du". Nahiz eta horrek galera batzuk ekarri, Amerika saria adibidez, "Artium-eko zuzendariak ez baitu bertan antolatu nahi".

Gainera, Artium-en filosofia beste era batera ikusten du gasteiztarrek, Amerika aretoa Gasteizko artistentzako gune naturala bazen, museo berria "kanpoko erakusketak ekartzen dituen super museoa da". Azken ezberdintasun bezala, Amerika aretoa erabat publikoa zela eta Artiumen diru pribatua sartzeko asmoa iragarri dela aipatu du Larrinbek.

Botoak irabazi

Baina zer jarriko dute Amerika aretoaren lekuan? Horixe da erantzun argirik gabe dagoen galdera. Hasiera batean Diputazioak aretoa Vital Kutzari saltzeko asmoa zuela esan zen. Orain zaharrentzako egoitza bat egin nahi duela iragarri du Aldundiak. "Udal hauteskundeak udaberrian izango direla kontuan izanda, hori iragartzea adin-duen kolektiboaren botoak lortzeko baino ez dela" ematen duela salatu du Larrinbek.

Izan ere, aretoa behin-betiko ixteko erabakia otsailean egia bilaka daiteke, hauteskundeak baino apur bat lehenago.

Aldarrikapen jai handia

Arabako Foru Aldundiak Amerika aretoa ixteko asmoa agertu zuenetik sinadura bilketa, prentsaurreko eta protesta ekitaldi ugari egin dituzte erabaki horren kontra agertu diren Gasteizko artistek. Nagusia hil honen amaieran egingo da, azken aukeraren usainaz gainera.

Iñaki Larrinbek azaldu duenez, oraindik data zehatzik ez duen jaia hiriko erdiguneko diskoteka edo aretoaren batean egingo da, Gasteizko aktore, marrazkilari eta artisten partehartzearekin. Zuzeneko musika izango du jaiak eta giro artistikoa sortzen ahalegingo dira antolatzaileak. "Zerbait dibertigarria egin nahi dugu eta gainera sinadurak biltzen hotza pasatzen egon ondoren ez da zaila izango", esan du Larrinbek.

Aldarrikapena jaietz jantziko da, baina ez da mamia ahaztuko eta bildutakoek musika entzun eta artistekin egoteaz gain, Diputazioko arduradunei fax bat bidali ahal izango diete Amerika aretoa ez ixteko eskatuz. Horiek dagoeneko bildu beste 6.500 sinadurei batuko zaizkie.



patxi zubizarreta, idazlea

PATXI ZUBIZARRETAren EZTIZKO EGUNAK



"Troyako zaldia" helduentzako ipuinarekin Ignacio Aldekoa saria irabazi; Antoine de Saint Exuperi-ren "Printze txikia" klasikoaren itzulpenarekin Gasteizko Udalaren Haur eta Gazte Literaturaren Itzulpen saria eskuratu; Durangoko azokan "Mila gau eta bat gehiago" ipuin bilduma aurkeztu; eta duela gutxi beste bi lan eman ditu argitaratu, "Markos kantinera" eta "Gaspar eta zuhaitzak". Ez da harritzekoa, beraz, Patxi Zubizarretak eztizko egunak bizi dituela esatea, ohikoa duen goxotasunez.

gizartearen minbizia diren emakumeen kontrako erasoak ere agertzen dira Troyako zaldia-n

Ignacio Aldekoa sariak bereziki poztu duela esan du Gasteizen bizi den ordiziarrak.

Poza, aitortu du apaltasunez, saria lortzeko asmotan ipuin bat aurkeztu zuen lehenengo aldia ez zelako, batetik, eta helduen literaturako itzulia izan delako. Sariara "Troyako zaldia" tituluarekin aurkeztutako ipuina idaztea eta saria irabaztea "arantz bat kentzea, bultzada bat" izan dela dio.

Izan ere, Patxi Zubizarreta haur literatura-ekin automatikoki lotzen badugu ere, bere lehenengo lanak helduentzat izan ziren. Gaur lan horiek "gazte bekatuak" bezala definitzen ditu, "zenbat nekien erakutsi nahi nuelako". Baina orain helduentzat lan egiteko gogo du: "haur literaturan eroso sentitzen naizenean, deseroso aritzen naizen helduen literaturara itzultzeko gogo dut".

Betiere, haur eta gazte literatura aparkatu gabe.

Ipuina argitaratzean "Troyako zaldia" titulua "Barrikada" izenagatik aldatu nahiko luke Patxi. Troyako zaldia trena da kasu horretan, Vigotik Hendaiara doan trena; barrikada, duela hogeitau urte Patxi bere etxeko leihotik ia egunero ikusten zuena. Bost pertsonajek kontatu istorioa da eta Euskal Herriak gauditu ez duen gatazkari buruz mintzo zaigu. Gatazka politikoak ez ditu, hala ere, beste arazo batzuk itzaltzen eta gizartearen minbizia diren emakumeen kontrako erasoak ere agertzen dira.

Helduentzako literaturara itzultzean ez du gai samurra aukeratu Patxi, eta gauza bera ere gertatzen da haurrei zuzendu ipuinetan; "Markos kantinera" ipuinean emakumezko eta gizonezkoei esleitu rolen inguruan idatzi du, "gizonok emakumeen ohiko rolak betetzeko irrika sentitzen ez dugun bitartean, berdintasuna ez dela etorriko" azaltzeko.

Literatura, plazer iturri

Hurrengo lanak helduentzat egiteko asmoa agertu badu ere, ez du haur eta gazteen mundua ahantziko Patxi Zubizarretak eta urtarilaren 9an Gauekoak eta Geu elkartearen ekimenez egingo den esperientzia berri eta interesgarri batean buru-belarri sartuta dago. Musika, antzerkia eta literatura bilduko duen ekitaldiak "Hamar mezu eta behi bat" titulua eramango du eta gazteei literatura plazer iturri bezala aurkezteko helburua du.

Patxi literaturaren historian barrena idatzi diren hamar maitasun kontakizun aukeratu eta Unax Ugalde aktore gasteiztarak horiek irakurri-antzeztuko ditu. Etenaldietan Mikel Urdangarinek musika joko du, abestiek emanaldia osatu eta betetzeko asmoarekin.

Euskal literatura oso momentu onean dagoela uste du Zubizarretak, baina irakurle gehiagoren bila "etxe zulotik ateratzeko" ordua dela dio, "publikoarengandik gehiegi urrundu delako".



txema flores & araba gerran • 1936

LEKUKOEKIN
ERREPRESIO
IZUGARRIAZ
HITZ EGITEKO
AZKEN AUKERA

"Araba gerran. 1936" liburua argitaratu berri du Txema Flores gasteiztarra. Liburua ez da berria, duela bost urte egindakoa baita eta aurretik entziklopedia batean ateratakoa; ezta gaia ere, 1936ko gerra. Nolanahi ere, berritasun ugari ditu, mito asko apurtzeko balio duen lana delako: Araban gerrarik eta errepresiorik izan ez zela diotenei proportzioan Bizkaian eta Gipuzkoan baino fusilatu gehiago egon zirela azaltzen die, garbi utziz herrialdea Francoren esku geratu bazen ez zela arabarren gogoagatik izan, hemen ezkerak (antiklerikala eta gogorra) eta abertzaleek baitzuten gehiengoa. 60 urte baino gehiago isilik egon direnek beldurrak ahaztu eta hitz egiteko tenorea dela erabaki dute. Besteontzako ikasteko ordua da.

- Liburuak "Araba gerran. 1936" izenadu, baina zein da aztertu duzun epea?

1936. urtea batez ere, eta baita 37ko lehenengo hilabeteak, Legutioko bataila orduan izan zelako.

- Nola bildu duzu liburuan agertzen den informazioa?

Gehienbat udal erregistroetan; fusilatuak datuak, adibidez, bertan agertzen dira: asko izen-abizenekin eta beste 64 'XXX' bezala identifikatuta, izena ez zekitelako. Izena ez zekitenean deskribapena jartzen zuten, esaterako, "ile beltz luzea, bizar motza eta begi grisak. Eskuineko zangoko belaunean benda bat zeraman haustura bat adierazten zuena eta 20 cm-ko ebakiondo

bat ageri zitzaion aspaldixetik tumoretutakoa". Bestetik, udal artxiboetan ere makina bat dokumentu daude, eta horretaz gain herrietako zaharrek hitz egin dut.

- Gerra zibilari buruzko lanak ugaltzen ari dira, epe hori bizi izan zuen belaunaldia galtzear dagoelako apika? Azken testigantzak biltzeko aukera ez galtzeko?

Belaunaldia galtzen ari dela egia da. Nik garai horretan 10-15 bat urte zutenekin berba egin dut, baina orduan 30 bat urte zutenak hilik daude, dudarik ez.

- Eta gelditzen diren lekuko horiek gaiaz mintzatzeko edo gogoratzeko beldurra galdu al dute?

Oraindik ere hitz egiteko beldurra dutenak badaude. Baina beste batzuk ez; izen-abizenekin gogoratu dituzte gertatutakoak, 60 urtetan ezkutuan eduki behar izan dutena ateratzeko ordua zela pentsatuta.

- Araban gerrarik eta errepresiorik ez zela egon kontatu digute maiz...

Errepresio itzela egon zen. 300 fusilatu egon ziren, eta horrek, orduko biztanle kopurua kontuan harturik, Bizkaian eta Gipuzkoan baino pertsona gehiago hil zituztela esan nahi du.

- Gerra hasita, guztiak pairatu al zuten errepresioa maila berdinean?

Anarkisten kontrakoa itzela izan zen. Esate baterako, Maeztun Isaac Puente medikuaren inguruan gazte taldetxo bat sortu zen, eta horietatik hamabost fusilatu zituzten. Biasterin CNTko hamazazpi eta

Eltziegon hamabost sozialista. Abertzaleek ere oso gaizki pasa zuten herrietan, nahiz eta hasiera batean EAJko batzuek, gutxi, Francoren alde egin. Normala zen, ideologikoki gertu zeuden, -kristauak, eskuinekoak,...-, baina alderdiak kolpearen kontrako adierazpen ofiziala egin zuenean errepresioa handia izan zen, asko kartzelaratuak izan ziren eta beste askok ihes egin zuten, Gipuzkoa eta Bizkaitik Araba batailoia sortuko zelarik.

txema flores

Gasteiztarra, 1963an jaioa, bi seme-ren aita. Nekazaritzako ingeniari teknikoaren ikasketak egin zituen. Gaur irakasle dabil institutu batean. Historiazale amorratua, bere azkeneko ikerketaren ondorioa da liburu hau. Arabera kultur taldeko lehendakaria, hori sortu zenetik.

...benetako historia ezagutzean dartzalako etorkizunaren eraikuntza...

...beti esan izan da 1936ko gerra Arabak Bizkaiarekin dituen mugetan izan zela eta ia Araba osoa Francoren aldekoa zela... BAIETZAPEN HORI EZ DA ZUZENA!...

...liburu honetan erakusten da Arabak errepresio izugarria jasan zuela...

...afusilatuak, ihes egindakoak, kartzelaratuak..., asko.

URTEETAN SALDU DIZKIGUTEN TOPIKO BATZUK BERTAN BEHERA BOTA NAHIAN



(testua, argazkiak: elkarlanean)

Jon Arretxe



"Ekialdeko mamuak"

Kalean du jada Arretxe bere azken liburua, "Ekialdeko mamuak". "Ostegunak", "Ostiralak" eta "Larunbatak" trilogia arrakastatsua amaitu ondoren, bere jatorriko generora itzuli da, bidaiei kontaketara. Saharako basamortuko ibilaldia kontatu zigun "Tubabu" bere estreinako obran, Brasilgo barnealde eta oihanean eginiko bidaia "Tuparen seme-alabak" obran. Oraingoan, berriz, beste batzuk dira ezaguturiko lekuak, eta bestelakoa da estiloa ere. Hona hemen egilearen hitzak:

"Ekialdeko mamuak" da zure azken liburua. Kontaiguzu, hitz gutxitan, zer aurkituko dugun bertan.

Egin dudana azken bidaia luzearen kronika da, iazko udazkenean egin zuena, Istanbuletik Teheranera bizikletaz, Turkia eta Iran zeharkatuz, ahalik eta era txukunenean kontaturik, betiere errealitatea errespetatuz, fikziorik sartu gabe.

2001ean, irailaren 11ko erasoaren ondoren, herrialde musulmanetan bizikletaz eta bakarrik ibiltzeak ez al zizun beldur apur bat ematen?

Beldur apur bat ez, beldur handia. Egia esan, atzera egitekotan ere izan nintzen, baina hegazkin-txartela erosita neukan irailaren hasieratik. Beste aukera bat ere pasatu zitzaidan

burutik: Istanbuletik ekialderantz jo beharrean, mendebalderantz jotzea, Bulgaria eta Errumanian barrena, toki horietan arrisku gutxiago egongo zelakoan. Dena den, azkenean hasierako planari eustea erabaki nuen.

Ekialde Hurbileko inguru hori zure obran ia lehenengoz ageri da ("Hakuna Matata"n zer edo zer aipatzen bazen ere). Zer aurkitu diozu berezia, edo bereizgarria?

Toki horiek barrutik ezagutu nahi nituen, ze hedabideen bidez heltzen zaigun informazioa oso manipulatu dago. Badirudi fanatikoak, zoroak eta halakoak baino ez daudela paraje horietan, eta hori dena zer neurritan den egia ikusi nahi nuen neure begiez. Errealitatea guztiz bestelakoa dela ohartu naiz.

Topikoak eta aurreiritziak hankaz gora gelditu dira, beraz?

Guztiz. Irango jendea buruz, adibidez, oso iritzi okerra daukagu. Leku gutxitan ezagutu dut hor bezain jende atsegin eta hospitalarioa, esaterako.

Kurdistan alderik alde zeharkatu duzu; sumatu duzu herri horren zapalketa-egoeraren zantzurik?

Gauza batzuk nabarmenak dira, batez ere polizien eta armadaren gehiegizko presentzia. Jendearen aldetik ere sumatu nuen argiegi hitz egiteko ardura edo beldurra. Dena den, badirudi orain "impasse" moduko baten daudela Kurdistanen, egoera lasaixeagoan, arrazoi batzuk direla

eta: Ocalan buruzagia harrapatu zutenetik tregua antzeko bat dago, Turkiako gobernuak itxura demokratikoa eman nahi du kanpora begira, batik bat Europako Batasunean sartzeko esperantzaz... Dena dela, ikusi beharko zer gertatzen den USAk Iraki erasoz gero, zer jarrera hartzen duten Irakeko iparraldeko kurduek, zelako eragina daukan horrek Turkia, Siria eta Irango kurdien artean... Edozer gerta liteke hurrengo hilabeteetan.

Zure obra honek badu diferentzia nabarmen bat aurreko beste bidaia-liburuekin: hemen apenas aipatzen da herri batetik besterako bizikletazko ibilaldia eta horren inguruko gorabeherak: herrietako egotaldiak kontatzen dituzu ia eskusiboki. Zergatik aldaketa hori?

Protagonismoa ez niolako eman nahi neure buruari, bidaia-irari, narratzaileari, baizik eta bidaia horrek ikusten duenari, Ekialde Hurbileko errealitateari, herrietako jende xeheari... Nik uste horrexek daukala benetako interesa, eta ez txirindulari mendebaldar baten sasiabenturak.

Jendearekiko hurbiltasun bat, haienganako berotasun bat nabari zaizu: ordu gutxitako harreman batean horren sentipen intentsoak nola lortu litezke?

Sentimenak erne edukita. Edonola ere, leku bakoitzean egotaldi laburrak egiteak desabantaila hori dauka, ezin da gehiegi sakondu harremanetan; ba-

tzuetan pena sumatzen da pertsona batzuk hobeto ezagutzeko aukera galtzeagatik. Dena den, bide egitea bera ere oso kilikagarria da, ze beti topa daiteke ustekaberen bat.

Ingelesa, frantsesa, portugesa... zure bidaletan erabili dituzun hizkuntzak dira, eta eroso samar darabiltzazunak. Nola moldatu zara hemen komunikaziorako?

Arazo larriak izan ditut, batez ere Turkiako lehenengo zatian, Itsaso Beltzaren kostaldean, nik ezagutzen ditudan hizkuntzek ez baitzidaten ezertarako balio izan. Besterik ezean, turkiera pixka bat ikasi behar izan nuen, keinuak erabili... Dena den, jendea oso irekia da, jatorra, elkarriketak sortzeko gogotsu egoten da, eta borondate onaz nola edo hala komunikatzea lortzen nuen.

Aurreko zure liburuetan Europara edo Ipar Amerikara joateko gogo itzela zeukan bisitatzen zenituen herrietako jendeak; hemen ere hori aurkitu duzu?

Bai, gehienbat Iranen, ze turkiar askok izan dute kontaktua, zuzen edo zeharka, Europarekin, Alemaniara joanda lanera, senideen bitartez... Iranen, oster, gazte asko aurki-

tu nituen handik irteteko desiatzen daudenak, bertako sistema oso mugatzailea baita askatasunei dago-kienez. Nahiko gogorra da gaztea izatea Iranen, areago neska izatea.

Eta zu nola ikusten zaituzte bidaia haueetan: tipo jator bat, inperialista ondo-bizi bat, pertsonaje xelebre eta bitxia...?

Bakoitzak era batera. Inperialistatzat hartuko ote ninduten zen nire ardura nagusia, Afganistango gerra pil-pilean egonik, baina ustekabe atsegin izan da horrelakorik ez gertatzea, salbuespen bat edo beste kenduta. Hango biztanleek ondo dakite bereizten agintarien eta herri xehearen artean, USA eta Mendebaldeko beste herrialdeen artean. Guk badugu zer ikasia hor.

Gordetzen al duzu, nolabait ere, bidaletan ezagutu dituzun pertsonen kiko harremanik?

Orain gero eta errazagoa da interneti esker, ze eskutitzen bidezko komunikazioari eustea zaila da, nagikeriagatik edo dena delakoagatik. Bizpahiru lagun turkiar eta irlandarrekin, oster, sarritan komunika-tzen naiz e-mailez. Xarma gutxiago dauka horrek, baina praktikoa da.

Bitxikeria bat: esaten al duzu hor barrena idazlea zarela? Sumatzen al dute liburu bateko pertsonaia bihur litezkeela?

Horrelakorik aipatzea kaltegarria izango litzateke, duda barik, ze jendearen jarrera aldatuko litzateke, mesfidantza sortu... batek daki. Nik esaten dut turista naizela, euren herrialdea ezagutu nahi dudala eta nire ogibideaz zeozer asmatzen dut. Hala ere, oraingo honetan, adibidez, baimena eskatu diot liburuko pertsonaia nagusietako bati bera aipatzeko, Neda izeneko neska irlandarrari. Oso pozik ipini da. Beste batzuen izenak, oster, aldatu egin ditut, arazorik izan ez dezaten agintariekin eta.

Galdera bikoitza, amaitzeko: bata, hurrengo bidaia nora? Biga, hurrengo liburua zertaz?

Irteera txiki askotxo egingo ditut hurrengo asteetan. Bidaia luzeei dagokienez, oster, ideiarik ez, ze ez dut gogoko planik egitea epe ertain edo luzean. Eta hurrengo liburuaz ez nago batere seguru. Zerbait desberdina egin nahi nuke, agian fikzio hutseko zerbait. Batek daki.



KIDS

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



MAIXA FERNANDEZ DE LANDA, ametsak borrokatzen dituen emakumea

edurne begiristain

argazkia:

edorta sanz

Duela sei hilabete Mairu bere lehen semea jaio zenetik, harekin praktikatzeko parada duenez, sarriagotan mintzatzen da euskaraz 37 urteko gasteiztar hau. Marisak IKA euskaltegian ikasi zuen euskara, baita EGA titulua atera ere. Bidea ez zitzaion samurra egin, baina tematia izateak lagundu egin zion gure hizkuntza ezagutzeko abenturan. Txagorritxun egiten du lan, erizain moduan. Lo egitea, irakurtzea eta mendira joatea gustuko ditu (aukeratzekotan, Pirinioetara). Burugogorra dela dio. Eta kanpoko seriotasun horrek emakume alai eta sentikor bat ezkututzen du.



- Duzun bertuterik handiena? Tematia naiz, neure buruari jartzen dizkiodan helburuak bete arte ez dut etsi egiten.

- Zer eskatzen diozu bizitzari? Lasaitasun fisikoa eta mentala. Gauzak gustura egitea, besterik ez.

- Eta zer eskatzen du herriak? Tamalez, jendearen nahia kontsumismo hutsa da.

- Jeniorik ba al duzu? Bai.

- Eta noiz kaleratzen duzu? Oso nekatuta nagoenean, lana dela eta esaterako; batzuetan tontakeria batekin kaleratzen dut.

- GEU aldizkariaren berririk bai? Bai, ezagutzen dut baina ez dut etxean jasotzen. Elkarrizketa hau bukatu bezain pronto harpidedun egingo naiz.

- Irratsaierik? Hala Bediko Una Hora Tarde.

- Gustuko musikaririk? Klasikoetatik Wagner,

eta Euskal Herriari dago-kionez, Mikel Laboa.

- Telebista programarik? Ez dut telebistarik, manipulazioa ekiditen saiatzen naiz.

- Liburu bat? Julio Cortazarren Rayuela eta Juan Mari Irigoienek Babilonia.

- Zer da Gasteizek duen onena? Lasaia dela eta berdeguneak dituela.

- Eta txarrena? Faxismoa.

- Bizitzeko leku bat? Lautadako edozein herri txiki.

- Oporretarako leku bat? Turismoak kutsatu ez duen leku bat, Pirinioak adibidez.

- Amets bat? Semea, bikotea..., oro har familia ongi egotea. Eta bestetik, Euskal Herri euskaldun, sozialista eta independentea lortzea.

- Amesgaiztorik? Gudak.

- Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen? Bai, baina zaila da.

josune veleaz de mendizabal

10 mezu eta dei 1

Gauekoak-ek Geu Elkartearen eskutik aurkeztuko duen ikuskizun berria

Gauekoak-en kanpaina berriari hasiera emango dion ikuskizuna aurkeztuko dizue Geu Elkartek hilaren 9an Principal Antzokian. "Hamar mezu eta dei bat" izenburuarekin Patxi Zubizarretak gazteei zuzendu amodiozko istorioa burutu du, bertan literatura, musika eta antzerkia uztartuko direla Unax Ugalde, Mikel Urdangarin eta Patxi Zubizarretaren eskutik.

Neska batek idatzizko mezu bat jasoko du Florida Kultur Etxeko liburutegian, amodio mezu bat alegia. Ordutik aurrera hilero-hilero hamar mezu jasoko ditu, guztietan literatura, poesia eta maitasuna nagusi direla. Mezu idatziez gain saioa bukaerara jotzen ari denean telefonoa joka hasiko da... bere maitale ezkontuaren identitatea ezagutzeko aukera aurkeztzen zaio neskari orduan... zalantzetan murgilduta neskaren erabakia ordu arte jakiterik ez dugu izango.

Lehenik eta behin, Gasteizen besterik ez aurkeztuko den saio honetarako Patxi Zubizarretak amodiozko literaturatik eginiko sailkapena bildu du; poemen iturri nagusia literatura unibertsala izanik Zubizarretak Rosa Montero, Manuel Rivas, Juan Kruz Igerabide eta Lisa Jewellen hitzak aukeratu ditu, batetik



Mikel Urdangarin eta Koldo Uriarteren musikarekin, eta bestetik, Unax Ugalderen irakurketa-antzezpenarekin saioa janzteko asmoz; Mikel Urdangarinak bere kanta batzuk biltzeaz gain, ekitaldi honetarako sorturiko beste hainbat ere ideatu ditu.

Beraz, ordubeteko iraupena izango duen ekitaldi honekin hitzordua daukazuela ez ezazue ahaztu: Urtarrilaren 9an, arratsaldeko 20.30etan, Principal Antzokian. Sarreraren kostua: 12 eta 6 euro bitartekoa (patioak 12 euro, anfiteatroak 9 euro, eta 6 euro anfiteatro bigarrenekoak); 30 urtetik beherakoek %50eko beherapena izango dute sarreran. EZ EZAZUE AUKERA GALDU ETA ETORRI GEUREKIN MEZUEZ ETA DEIAZ GOZATZERA!

JOSETXO taberna
"ez dago pintxorik"
Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARAIA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

EL BAR Kutxi
eguneko

bar restaurante albéniz
Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazulatzak
Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

NONBAIT
Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... Euskal oihalak: mantelak, zapiak...
Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak
Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7
Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com **GASTEIZ**

eusko alkartasuna
www.ea-euskadi.com
arabarrok euskarari BAI
www.euskoalkartasuna.org
GA gazte abertzaleak
www.gazteabertzaleak.com

MIKO
Izozkiak

"FREEXKUE", MANTXUT BILDUMAREN AZKENENGO LIBURUAREN AURKEZPENA LASTER GASTEIZEN



urtarrilaren 22an Aldabe gizarte-etxean 18.00etan

josune veleaz de mendiabal

argazkiak: artxibo

"E-mailak bidaltzeari imildu esaten diogu, galtzontzilo zikinei garzonzillo, mutikoen masturbazioari partxisean aritu, neskeenari (Gasteizen bertan bildutako) xagua klikatu edo marrak sartzeari angulak jan...". Hauek dira, besteak beste, Asisko Urmenetaren azkenengo liburuak biltzen dituen gazteek erabilitako eta sortutako lokuzio berriak.

Mantxut bilduma gazteen gustu, behar, bizimodu,

umore eta inguruari egokitutako tresna dugu, kaleko hizkuntzak behar duen bizitasunaz mintza ahal izateko erdaraz edo frantsezko errekursoetara jo behar hori gairatzen lagunduko diguna hain zuzen ere. Hortaz, euskarazko argota aberasteaz gain, beste hizkuntzetako lokuzioak eta esamoldeak ikasteko parada eskaintzen du "Freexkue".

Euskal Herriko hiriburuetatik ezagutera ematen ari den argitalpen berri hau Gasteizen ere aurkeztuko da

urtarrilean Geu Elkartearen laguntzaz. Gonbidatuta zaudete denak!!

Lokuzio bakoitza Asisko Urmenetaren sarrera batez lagundurik agertzen da, baita Jon Alonso idazlearen umoreaz eta Argiako kolaboratzaileak izan diren gazteen erregistro kolokialaz ere. Geu-n egitasmoan parte hartu duen umore handiko pertsonajearekin hitz egiteko aukera izan dugu, Kike Amonarrizekin, hain justu ere.

-Mantxut proiektuaren atzean "Zazpiak batman" kolektiboa dago, zertan datza?

"Zazpiak Batman" kolektiboa, euskarazko kale hizkerak agertzen dituen gabezien inguruko kezka sortua da. Asisko

Urmeneta eta Jon Alonso dira talde honen bultzatzaile nagusiak eta horien inguruan, beste hainbat lagun elkartu gara: "Mokoroa Power" azpikolektiboa, Iparraldeko bikingoak eta bestelako fartsante koadrila.

-Zertan ezberditzen da hirugarren liburu hau gainontzeko biek?

Liburu hauetan euskarazko lokuzioak proposatzen dira, modu grafiko eta ikusgarri batean. Lokuzio horien artean denetarik dago, han-hemenka bildutako esaera zahar eta berriak, egokituak, asmatuak... Lokuzio bakoitza zer den modu argiagotan adierazteko, Asisko Urmenetaren marrazki batez lagunduta agertzen da, eta azkenik gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko itzulpenak edo baliokideak agertzen dira.

Lokuzio horien bidez, gazteen erregistro kaletarra eta kolokiala indartu nahi da, proposamenak eginez, eta berauek sortzeko bideak erakutsiz.

"Freexkue" sail honetako hirugarren liburua da, eta lokuzio berriei gain, Asisko Urmenetaren sarrera bat, eta orain artean argitaratutako eta bildutako lokuzio eta esamoldeen bilduma erantsi da modu honetan sailkatuta: Asmatuak, Entzunak, Irakurriak, Ostuak eta ÜTÜLIAK.

- "Freexkue" liburua bildumaren azkena izango da edota hurrengo argitalpenak ere izango dira etorkizunean?

"Mantxut" proiektuaren helburua 3 liburu osatzea zen eta hori bete dugu. Orain aztertzen ari gara, hasitako bide honi jarraipena nola eman. Guk lan honetan jarraituko dugu, baina seguraski beste formatu batzuetan.

-Zer-nolako erantzuna jaso du orain arteko "Mantxut" bildumak?

Uste ez bezalakoa. Liburuek arrakasta izan dute. Liburuak, "Mantxut" en eta gazte hizkeraren inguruan aurtan bertan "Zazpiak Batman"eko kideen artean 100 hitzaldi baino gehiago eman ditugu, eta gure proposamen batzuk erabiltzen hasiak dira han-hemenka.

Baina gure ustez arrakastarik handiena kaleko hizkeraren inguruan sumatu dugun kezka eta interesa izan dira. Jendeak premia sumatzen du eta hizkuntzarekin jolasteko eta gozatzeko gogoia du.

IRYSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA



Sagardotegia

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHA
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK**

korrika laguntzailea



KORRIKA BADATOR!!!


Testua: Gasteizko aek

Bai, bai, bai **Korrika13** hurbiltzen ari da tipi-tapa hotsak hurbiltzen ari dira urrutitik Euskal Herrira. Datorren urtean berriro 11 egunez, gau eta egun gelditu gabe Euskal Herri osoa korrika zeharkatuko dugu Mauletik Iruñearaino, eta Araban eta Gasteizen ere korrika egingo dugu.

Gainera korrikarekin batera, korrika kulturala ere badator, noski! Korrika13 honetan ekitaldi nagusia 'Metxa' antzezlanak izango da, 'Korrika-AEK' bekaren irabazlea izan zena. Lan hau Koldo Izagirrerren testu batean oinarrituta dago eta Eneko Olasagastik zuzenduko du, musika berri Joseba Tapiak joko du bere 'Agur intxorta maite' diskatik ateratako doinuekin eta aktoreak, besteak beste, Jose Ramon Soroiz, Angel Alkain, Ramon Agirre eta Aizpea Goenaga. Horrez gain, badakizue, ekitaldi gehiago ere edukiko ditugu: kontzertuak, antzezlanak, bertsosaiak, errezitaldiak, jaiak...

Zoritarrez, berri guztiak ez dira onak, Korrika egin egingo dugu bai, Apirilaren 4tik 12ra, Mauletik Baionara, eta Gasteiztik apirilaren 10ean pasatuko da, Euskararen aldeko ekimenik jendet-

suen eta garrantzitsuen delako, Euskarak behar duelako eta bertan bilduko ditugun gogo eta diruarekin gure hizkuntzaren berreskurapenari lagunduko diogulako. Baina, Korrika13 normaltasunez egin ahal izateko, den-denon laguntza ezinbestekoa zaigu. Gure egoera ekonomikoa benetan kaskarra da, Garzón 'epaile' ospetsuak gure aurka egin zuen zentzurik gabeko auzia dela eta, gure jabetzen %80 bahituta daude, eta 5 urtetan 800 miloi pezetatik gora ordainarazten digu (hele-



gitea erantzunaren zain dagoen bitartean urtero-urtero ordaintzen jarraitu behar dugu jakina). Honek guztiak kolokan jarri du gure euskararen aldeko jarduerari eta Korrika bera ere.

Horregatik aurrekanpaina bat jarri dugu kalean eta beraren bitartez zuen laguntza eskatu, **Korrika laguntzailea** zu zeu izan zaitezen. Zer da korrika laguntzailea izatea?

Oso erraza. Zuk korrika laguntzaileko pina erosten baduzu eta horrekin batera zure datuak



utzi, guk korrika laguntzaileko txartela egingo dizugu eta txartel horrekin Euskal Herriko komertzio, zinema eta enpresa askotan beherapenak eta abantaila ekonomikoak edukiko dituzu. Horrela zuk laguntzen diozu Korrikari eta Korrikak zuri. Ekimen honetarako EHko erakunde, alderdi politiko, sindikatu eta herri mugimendu askoren laguntza izango dugu korrika laguntzailearen aurrekanpaina leku guztietara zabaltzeko. Beraz, seguru asko hemendik edo handik helduko zaitzue aukera, hala ere AEKko euskaltegietan aurkituko duzue, edo beste la Kutxi kaleko 41. zenbakian jarri dugun **Korrika-Dendan**, non Korrika13ko materiala eta material zaharra ere aurkituko duzuen.

Beraz, badakizue, Korrika egin egingo dugu sasi 'epaile' guztien gainetik denon artean. Hasi entrenatzen, laster egin beharko dugu korrika metroz metro, kilometroz kilometro... tipi-tapa, tipi-tapa... Korrika!

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:

GORA EUSKADI

ASKATUTA!

gai toxikoak

ARROPA ETA SITSAREN KONTRAKOAK

ARROPA

Gaur egun jantzietan dagoen aukera ez da oso naturala: ehun sintetikoak (oso prozesu kutsakorretan lortuak) eta naturalak (pestizidekin tratatuak) nahasten dira, eta horiei gero eta gai kimiko gehiago erantzen zaie: kloro likidoak, formaldehidoa (ez "zimurtzeko"), zuritzaileak, koloratzaileak, gai erregaitzak, sitsaren kontrakoak etab.

Are gehiago, PVCz eginiko arropa ere badago.

ZER DAUKATE TOXIKOAK IZATEKO?

ERABILTZERAKOAN

Osasunari egiten dioten kaltea:

-Ehun sintetikoek larruazalaren arnasketa eta transpirazioa galarazten dute.

-Formaldehidoa, larruazalaren hezetasunarekin kontaktuan, lurrin modura aska daiteke: erreazio alergiko handiak sortzen ditu, bertigoa eta buruko mina. Begi eta biriketarako narritagarria da; minbizia sortzen duen susmoa dago. Garbitzean ez da kentzen.

-Zuritzaileak kloroaren deribatuak izan daitezke eta ehunetan dioxina hondarrak utz ditzakete.

-Pigmentu askok erreazio alergikoak eragiten dituzte.

-Erabiltzen diren koloratzaileen %14 kantzerigenoak izan daitezkeen susmoa dago.

HONDAKIN MODURA

Ingurumenari egiten dioten kaltea:

Ehun sintetiko asko oso arrisku-tsua dira hondakin modura, eta arrisku hori larriagotu egiten da PVCz eginiko arropari dagokionez. Erraustuz gero, PVCk oso gas toxikoak askatzen ditu.

IRTENBIDEAK:

• Gure arropa ahalik eta gehien aprobetxatu; zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta produktu toxiko gutxiago edukiko du.

• Bigarren eskuko arropa erabili; familiakoen, lagunen eta abarren arropa erabili.

• Laborantza ekologikoko ehun naturalekin egindako jantziak eskatu eta erosi (kotoia, lihoa, artilea).

• Ehun naturalak beti sintetikoak baino hobeak dira. Daukazu arropa guztia BENETAN beharrezko al duzu?

SITSAREN KONTRAKOAK

Naftalina edo paradiklorobentzenoa izaten dute. Toxikoak dira, narritagarriak, eta airea eta ura kutsatzen dute.

IRTENBIDEAK:

• Zedro-txirbilez edo izpiliku-lore lehorrez beteriko oihalezko zorrotxoak eskegi.

• Ereintz-hostoz beteriko ontziak zabalik ipini.

DATUA

Gero eta ohikoagoa da fabrika-tzaileak jantzia lehorrean garbitzeko gomendatzea: horretarako, tindategietan disolbatzaile kloratu bat erabiltzen da, toxikoa, epe luzera ondorio kantzerigenoak dituena. Gaur egun teknologia alternatiboa erabiltzen duten tindategiak daude: LMH (multiprozesuko garbiketa hezea). Jantzi asko, lehorrean garbitu beharrean, eskuz eta xaboi leuna-ekin garbi daiteke.

PINTURAK

ZER DAUKATE TOXIKOAK IZATEKO?

• Aglutinatzaileak: ohikoa, fenol formaldehidikoa.

• Disolbatzaileak, hidrokarburo kloratuak (dikloroetanoa) edo aromatikoa (toluenoa, xilenoa). Guztietatik % 60-80 dira.

• Kontserbatzaileak: PCP (konposatu kloratu astuna) eta antzeko fungizidak, merkurioarekin konposatuak, binefilo polikloratuak, aldehidoak.

• Kadmioa, beruna eta antzeko

metal astunak izan ditzaketen pigmentuak.

• Lehortzaileak, maiz beruna izan dezaketenak.

ERABILTZERAKOAN

Osasunari egiten dioten kaltea:

• Ematerakoan eta lehortzerakoan pinturak gas toxikoak askatzen dituzte.

• Formaldehidoa eta zenbait disolbatzaile eta fungizida kantzerigenotzat jotzen dira eta mutagenikoak izan daitezkeen susmoa dago.

• Disolbatzaileek nerbio-sistema

zentrala anestesiatzen dute. Larruazala eta begiak narritatzen dituzte, eta zorabioa eta buruko mina eragin dezakete, kaltea hezur-muinari, gibel eta giltzurrunen pozoiketa, biriketako edema...

• Fungizidak narritagarriak dira; batzuk korrosiboak dira, pozoitsuak, eta sistema immunitarioari eragiten diote.

• Berunak kalte egiten die nerbio-sistema zentralari, giltzurrunei eta muskuluei, ugalketa-sistemari eta adimen-gaitasunari.

PLASTIKOAK (PVC), BINILOAREN INBASIOA



ZER DAUKA TOXIKOA IZATEKO?

PVC binil kloruroa da. Aditibo ugari behar du malgutasuna eta trinkotasuna emateko: plastifikatzaileak (ftalatoak), egonkortzaileak (metal astunak: beruna, zinka, eztainua, bromoa), biozidak (degrada ez dadin). Aditiboak amaierako pisuaren %60 ere izan daitezke.

ERABILTZERAKOAN

Osasunari egiten dion kaltea:

Aditiboak tenperatura, presio edota ur, elikagai edo eguzkiarekiko kontaktuaz aska daitezke. Oraindik orain jakin da ftalatoek giltzurrun, gibel eta ugalketa sisteman lesioak eta

Gaur egun 4.000 produktu desberdin baino gehiago fabrikatzen dira PVCn oinarrituta.

minbizia eragiten dutela eta arazo hormonalak.

HONDAKIN MODURA

Ingurumenari egiten dion kaltea:

Erre edo erraustuz gero azido klorhidrikoa (gas toxiko eta korrosiboa) eta konposatu organokloratuak askatzen dira, hala nola dioxina ospetsuak, ingurumenean luze irauten dutenak.

Polikiago, zabortegietan, azkenean deribatu kloratuak askatzen dira, lurra eta ura asko kutsatzen dutenak eta elikadura kateetan zehar igarotzen direnak.

Osasunari egiten dion kaltea:

Dioxinak bizidunen gantz-ehunetan pilatzen dira, eta elikaduraren bidez iristen dira gugana. Gaixotasun asko sortzen dute, baita dosi txikietan ere: minbizia eta arazoak ugalketan, abortuak eragin ditzakete, malformazioak, atrofia testikuluetan, pisu-arazoak, koagulazio-arazoak etab.

IRTENBIDEAK:

PVCren ia erabilera guztiek beste gai sanoago eta ingurumenarekiko

errespetu handiagokoak ordezkatu dituzte. Haatik... PVCrik gabe bizi gaituzke!

- Hodiak: polipropilenoa, polietilenoa, burdina, harea-zeramika etab.

- Leihoak, ateak, pertsianak: gestio jasangarriko zura.

- Zoruak, zokaloak: baldosa, zura, linolioa, kortxoa (laka eta kola toxikorik gabe).

- Junturak: goma, polietilenoa.

- Altzariak eta osagarriak: gestio jasangarriko zura, beira, metalak, zeramika...

- Horma eta sabaien estaldurak: igeltsua, gestio jasangarriko zura, zurharia, paper margotua (PVCzkoa ez), pintura "ekologikoa".

- Kableen estaldura: silikona, polietileno erretikulatua, kautxua polipropilenoan...

- Makarroiak: polietilenoa, polipropilenoa.

- Entxufeak: kautxua.

Eta beste alternatiba asko!

DATUA

Europako 300 hirik baino gehiagok herri-lanetan PVC ez erabiltzeko neurriak hartu dituzte.

HONDAKIN MODURA

Ingurumenari egiten dioten kaltea:

- Ura kutsatzeko ahalmen handia.
- Pinturen osagaiak ez dira ez degradagarriak ez birziklagarriak. Zenbait herrialdetan horietako batzuk debekatuta daude (PCBak, lindanoa etab.), baina debekurik ez dutenentzako fabrikatzen jarraitzen da.

IRTENBIDEAK:

- Pintura eta berniz ekologiko gehiago eskatu: ez dute inoiz gas toxi-

korik askatzen eta biodegradagarriak dira. Aglutinatzaile gisa erretxina naturalak, argizaria eta latexa erabiltzen dituzte, eta diluitzaile gisa ura edo olio esentziala (laranja azalekoa). Kontserbatzaileak gatz mineralez eta pigmentu mineral edo begetalez eginak dira.

- Ur-pintura esaten zaien pintura komertzialak beste batzuk baino hobeak dira, baina ez dira onenak: beren konposizioan %40-50 baino ez da ura, eta gainerakoa disolbatzaile sintetikoak dira.

- Ez prestatu behar baino nahasketa gehiago. Ez bota hustubidetik soberan dagoena.

DATUA

Pinturen osagai hegazkorrek kaltegarriak dira aplikatzean eta lehortzean eta, kontzentrazioaren eta aireztapenaren arabera, ondorioek asteak edo hilabeteak iraun dezakete...

Hegazkorrek ez diren osagaiak hautsean, ehunetan edo are elikagaietan pila daitezke, eta horien ondorioak 20 urtez ere luza daitezke.

HOZKAILUAK ETA AIRE EGOKITUA, GEHIEGI BEROTZEN DUEN HOTZA

Zergatik dira kaltegarriak?

HOZKAILUAK

Gas kloratuak (klorodunak): ozono-geruza suntsitzen duten CFSak, hozteko gasa eta apartzailea adibidez.

Ekologiko gisa saltzen diren beste ordezkari batzuk: HFC hozteko likidoak eta HCFC apartzaileak.

AIRE EGOKITUA

Hozteko likidoen kantitateak hozkailuetan erabiltzen direnak baino askoz handiagoak dira.

CFCak baldin badituzte

Osasunari egiten dioten kaltea:

Ozono-geruza hondatzen dutenez, alergiak eta eguzkiaren erretzeko arriskua handitzen dira, larruazaleko minbizi eta begietako gaitz gehiago dago (kaltea erretinan eta kataratak). Sistema immunologikoa ahultzeak herpesa, hepatitis eta beste gaitz batzuk gehiagotzea dakar.

Ingurumenari egiten dioten kaltea:

Ozono-geruza suntsitzeak ekosistemetan arazoak dakartza: landareen fotosintesiari eragiten dio, eta indar txikiagoa dutenez, plaga eta gaixotasunen aurrean ahulagoak dira. Uztak murrizten dira. Ozeanoen bizitzari kalte egiten diote, batez ere itsas ekosistemen elikaduraren oinarri den fitoplanktonari.

HCFCak edo HFCak baldin badituzte


Ingurumenari egiten dioten kaltea:

Gaur egun ordezkariak ez dira konponbidea (HCFC eta HFC gasak). Gas berotegiak dira, luraren berotzeari laguntzen diote eta, ondorioz, aldaketa klimatikoari.

IRTENBIDEAK:

- Ez erosi CFCak edo HFCak (hozteko likido modura) edo HCFCak (apartzaile modura) dituzten hozkailuak.

- Merkatuan dagoeneko "Green-freeze" teknologiko hozkailuak daude (hotz berdea). Hozteko likido eta apartzaile modura hidrokarburo



naturalak erabiltzen dituzte (propanoa, isobutanoa, ziklopentanoa...). Eredu horiek R-600a siglak daramatzate atzeko konpresorean inprimatuta.

- Eraikuntza bioklimatikoak, antzinako jakituriaren zati bat berreskuratuz, udan freskoak eta neguan hotzak diren etxeak lortzen ditu, energia asko aurreztuz.

DATUA

Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) 1999ko abuztuaren jakinarazi zuen ozono-geruzaren suntsiketarako (%10ekoa kalkulatzeko) urtero 300.000 larruazaleko minbizi kasu berri sortzen dituela.

Luma

DENBORA PASA eta HITZ JOKOEN HILABETEKARIA

eUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

12 ale ~~36€~~
urtean **30€**



HARPIDEDUN izan nahi dut

ZOZKETA MUNDIALA HARPIDETZEN ARTEAN 2003KO MARTXOAN

DEITURAK: _____

IZENA: _____

HELBIDEA: _____

PK: _____

HERRIA: _____ LURRALDEA: _____

TFNOA: _____ SORTEGUNA: _____

POSTA E: _____

Ordainketa mota:

☐ Txekea ☐ Kontu korrontea

Titularra: _____

Ipar E.H. _____

Ipar E.H. _____

LUMA, O.E. - Istillaga plaza 2 behe. - 20304 IRUN (Gipuzkoa)

Tfnoa: (0034). 943 62 95 64 - 943 63 08 83

E posta: lumazorrotz@infonegocio.com

ORDENAGAILUAK, TXIPEN ALDERDI EZKUTUA

Zer daukate toxikoak izateko?

Ordenagailu bat material-nahasketa sofistikatu eta konplexua da:

- Efektu fluoreszentea lortzeko, monitorearen pantailak "lur arraroak" dauzka (amerizioak, galioa, indioa, talioa...).
- Osagarriak PVCz egindakoak izan ohi dira (sagua, teklatura, kableak etab.).
- CPUko soldadurak, ezta-nuzkoak.
- Pinturak metal astunak izan ditzake.
- Erretxina sintetikoak eta antzeko osagaiak egoten dira.
- Inprimagailuetan, zorrotada zein laser bidezkoetan, tinta-kartutxoek metal astunen hondarrak izaten dituzte (batez ere beruna).

ERABILTZERAKOAN

Osasunari egiten dioten kaltea:

Pantailaren bidez maila txikiko erradiazioa emiti dezakete.

Pantailaren inguruan frekuentzia txikiko eremu elektromagnetikoen emisioak arazoak sortzen ditu ugalketan eta ikusmenean, depresioa, buruko mina eta antsietatea.

Laser bidezko inprimagailuetan, argi sorta hori arriskutsua izan daiteke.

Monitoreko pantailan dauden "lur arraroak" osasunari eta ingurumenari zer ondorio ekar diezaiaketen argitu gabe dago oraindik.



Ingurumenari egiten dioten kaltea:

Ordenagailuen erabilera masiboak energiaren kontsumoa handitzea ekarri du eta, uste ez bezala, paperaren kontsumoa ere handitu egin du.

HONDAKIN MODURA tratamendu gaitza dute.

Material toxiko guztiek lurra eta ura kutsa dezakete eta, erraustuz gero, poluitzaile atmosferiko arriskutsuak dira.

IRTENBIDEAK:

- Ahalik eta paper gutxien erabiltzea eta alde batetik bakarrik

idatzitako papera berrerabiltzea dira hondakinak murrizteko neurrietako batzuk.

- Zirriborroak behar denean baino ez inprimatu: murriz dezagun kartutxoak, papera eta energia kontsumitzetik sortzen den kutsadura.

• Inprimagailu fabrikatzaileak presiona ditzagun, tinta-kartutxo mota guztiak erabili ahal izateko, diseinuan eta itzulketa sistemetan aldaketak egin ditzaten.

• Material informatikoen toxikotasunari buruzko ezagutza eta hedapenari lehentasuna eman.

• Ordenagailu garbiagoak exijitu: energi kontsumo txikiagoa, material ez hain toxikoak... eta fabrikatzaile eta saltzaileei produktuei buruzko informazio gehiago eskatu.

DATUA

Munduko ordenagailu guztiek gutxi gorabehera 240.000 kW/h elektrizitate kontsumitzen dute (Brasilek urtero erabiltzen duen energiaren parekoa), eta horrek esan nahi du urtean 20 milioi tona CO2 emititzen dutela. Mundu osoan ordenagailu pertsonaletan erabiltzen den paperaren kontsumoa 115.000 milioi orrikoa da.

AUTOMOBILAK, TOXIKO IBILTARIAK

Automobila kutsadura, hondakin eta heriotza gehien sortzen duen kontsumoko objektua da.

Estatu espainiarrean, automobila da bat eta berrogei urte bitartekoen artean heriotzako lehenengo kausa. Kutsadura atmosferikoa (zirkulazioa da kutsadura honen %38ren erantzulea) eta akustikoa sortzen du.

Baina... autoak ez du soilik ihes-tututik kutsatzen!

AUTOA... ZER DAUKA TOXIKOA IZATEKO?

- Ihes-tututik irteten dena: beruna, sufre-dioxidoa, nitrogeno-oxidoak, karbono-dioxidoa, karbono-dioxidoa, erre gabeko hidrokarburoak eta partikula solidoak.
- Bateriak: azido sulfurikoa (korrosiboa, uraren PHa aldatzen du) eta beruna (metal astuna).
- Motorreko olioak: hidrokarburoak (esaterako, bentzenoa), hainbat aditibo eta metal astunak.
- Olioaren iragazki erabilia: olio-hondarrak ditu eta, beraz, hondakin arriskutsutzat jotzen da.
- Korrosioaren kontrako tratamendua: disolbatzaile toxikoak eta metal astunak (kadmioa).
- Balazta-likidoak: glikol-eterrak eta metal astunak.
- Transmisio-likidoak (balbulina): hidrokarburoak eta mineral-olioak (toxikoak eta sukoiak). Kutsadurari dagokionez, erabilitako olioak bezala sailkatzen dira.
- Hozteko likidoak: etilenglikola.
- Izotz kontrakoa: etilenglikola, aditiboak (korrosio-inhibitzaileak: nitratoak, nitritoak, fosfatoak,



silikatoak, molibdatoak eta bentzoatoak; koloratzaileak eta agente apartzaileak), olioak, koipeak eta metal astunak.

- Pneumatikoak: kautxu naturala edo sintetikoa, beruna, sufrea, zink-oxidoa eta altzairua (sukoiak). Errez gero oso gas arriskutsuak sortzen dituzte: sufre-dioxidoa, kedarra, bentzenoa, toluenoa, xilenoa, fenolak, furanoak, hidrokarburo aromatikoak, naftalenoa, zink-oxidoa, berun-oxidoa, eta lurpea kutsatzen duen olio-isurki bat ere sortzen da.
- Aire egokitua: CFCak edo HFCak izaten ditu, ozono-geruzarako kaltegarriak.
- Balazta-pastilak eta enbragea: amiantoak izan ohi dira, auto berrietan material hori ordezkatu badute ere.
- Erregaiaren depositua: fabrikatze-ko fluorra erabiltzen da.
- Isolatzaileak: formaldehidoa edota poliuretano-aparra izaten dute.
- Plastikak: desberdinak dira eta PVC ugari dago.

- Pintura: disolbatzaile toxikoak, pigmentu sintetikoak eta metal astunak dauzka.

Ingurumenari egiten dioten kaltea:

Ura, lurra eta airea kutsatzen dute.

Euri azidoari eta berotegi-efektuari laguntzen diete.

Ozono-geruzari kalte egiten diote (gai honetan aitzindari nagusiak dira).

IRTENBIDEAK:

- Automobilaren erabilera murriztu.
- Garraio publikoa eta bizikleta erabili eta oinez ibili.
- Hiriak pertsonentzat diseinatu, ez automobilentzat.

DATUA

Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) 1999ko ekainean adierazi zuen automobilaren kutsadurak auto-istri-puek baino heriotza gehiago eragiten duela.

testua: 'traperos de emaus'en taldeen eta rezikleta-ren erakusketa (AERESS; asociación de grupos recuperadores de economía social y solidaria)

[testu itzulia (aztiri)]

argazkiak: edorta sanz



adaka **madinabeitia**

Floridako altxorra ! 35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna



"EL CLARETE"

Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonoa: 945 26 38 74



ARMAZOIRIK
GABEKO
BETAURREKOAK

49 €

www.multipticas.com
Informa zaitez gure
Kreditu Txartelen abantailaz

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTI OPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33
Vitoria-Gasteiz

Garagardotegia

Ostiral arratsaldeak,
larunbatetan eta
igandeetan
IREKITA

Gerentzia berria

La Blanca

* Oilasko erreak
* Kazolatxoak

UKONDO
ERREA
DAGO

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz



enara herran:

"Igeriketan nabarmendu nahiko banu kanpora joan beharko nuke eta egun nahiago dut hemen jarraitu"

ORAIN ARTE LORTUTAKO MARKAK:

• 2000. urtean: Euskadiko Txapelketan, Junior kategorian (udan), 50-100 m bular: zilarrezko bi domina.

• 2001. urtean: Euskadiko Txapelketan, Junior (neguan), 50 m bular: zilarra.

• 2001. urtean: Espainiako Txapelketan, Junior (udan): brontze 1 (100m bular) eta 2 zilar (50m bular).

• 2002. urtean: Espainiako Txapelketan, bere lehen urtea maila absolutuan: hirugarrena geratu da. Maila horretan 29 urte bitarteko igerilariak ibili dira; horietatik, Euskadiko taldean 40 lagun; beraien artean 10 arabar eta 9 gasteiztar.

josune veleaz de mendizabal
argazkiak: edorta sanz

Enara Herran (Gasteizen, 1985.eko urtarrilaren 14an jaioa) egun batxilergoko bigarren maila ikasten ari da; sei urterekin hasi zen igeriketan eta 12-13 urterekin, berriz, txapelketetan parte hartzen. Aurten Junior kategoriaz agurtu eta maila absolutuan aritu da lehenengoz Espainiako txapelketan, eta bere harridurarako hirugarren postua lortu du. Oroitzapenen artean, hortaz, Enarak Valentzian hautsi berri duen marka: 50 metro-bularrean, 34, 07 segunduko denbora, alegia, aurreko irabazle-arena (34, 28 segundu) eta berea propioa (34, 60) gaindu zituela.

Judimendi taldeko igerilaria den gaztea, agian orkatila bihurritu izan ez balu futbol munduan arituko litzateke gaur egun, kirolen artean gus-tukoenetarikoa baitu Enarak. Hala eta guztiz ere, orain igeriketa hautatu

Sartu
Zure arropa eta oinetakoa
www.sartuenda.com
Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRAL
TABERNA
Equiditan, zabalhandik ostialde
JANTOKI
VEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 65 33

Argazki - Estudioa
Erramun
Hegaclo Euzpirer, 23
Inoa: 13 71 02
01006
Askatasun kalea, 5
Inoa: 26 19 91
01004

Uetzal
Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
arizuan) Tfnoa: 945 25 03 52

LIZARRALDE
SOINYA
TXALAPARTA, S.L.
945 226 977
GASTEIZ
SOINU PROFESIONAL • MEGAFONIA
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA

Jazkarprint
Imprenta / Inprimategia
Helbide berria...
Landazuri, 7
• INPRIMATEGIA •
Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

izanaz poztan da, adiskideak aurkitu baititu bertan. Pasarterik pasarte, ezin ahaztu dabil Enara sei urte zitueneko igeriketako ikastaro hori, non irakasleak igerileku handiaren erdira bota zuen: "itoko nintzela pentsatu nuen, noizean behin burura datorkit", barre egiten du.

• **Noiz erabaki zenuen igeriketan jarraitu nahi zenuela?**

Sei urterekin gurasoek apuntatu ninduten eta txikia nintzen arren gustatzen zitzaidan; engantxatzen hasi eta orain arte... Futbola ere banuen gustuko, baina orkatila mindu eta orduan utzi nuen. Hala eta guztiz ere, egun igeriketa hautatuko nuke, han aurkitu baititut lagunak eta koadrila.

• **Osagarria al da zure eguneroko bizitzarekin?**

Akaso 20 urterekin ez da hain erraza, ikasteko denbora behar duzulako eta bata besteari oztopo egiten diolako. Normalean batxilergo arte jendeak jarraitzen du Euskal Herrian; Estatu mailan, ostera, badago jendea 29 urterekin jarraitzen duena, ordaintzen baitiete eta hori desberdina da... Hortik aurrera ezer gutxi eskaintzen da kirol honetan.

• **Beraz, beste hainbat kiroletan ez bezala igeriketak ez du jateko adina ematen?**

Lauk bakarrik ahal dute honetaz bizi...

• **Zuk marka onak lortu dituzu eta begi-bistakoa da bide onetik zabiltzala. Noraino heltzeko asmoa?**

Zaila da esatea..., momentuz ez dakit zer ikasiko dudana, ezta nora joan-

go naizen ere, eta igeriketak arreta eta erabateko arduraldia eskatzen du, beraz, momentuz jarraitzeko aukera daukat eta aurrerago ikusiko dugu.

• **Olinpiadetan esku hartzeko zer da igerilari bati eskatzen zaiona?**

Gehiago entrenatzea. Une honetan zerbait gehiago nahiko banu kanpora joan beharko nuke, "etekin altua" delakoan aritzeko; normalean zuk eskatu beka da hau, baina horretarako bikaina bainoago izan behar duzu, eta hori oso zaila da...

• **...eta aukera izanez gero?**

Ez dut uste, Madrilera edota Bartzelonara joan beharko nintzateke, eta egun nahiago dut hemen jarraitu; gainera oraindik ez dakit zer ikasiko dudana datorren urtean...

• **Noraino eraman zaitu igeriketak?**

Valentzian, Palman, Bartzelonan... egon naiz, eta gero aurtengo denboraldia hasi baino lehen klubarekin Bruselan egon ginen kontzentratuak...

• **Zer eman dizu kirol honek?**

Batez ere adiskideak eta kanpoko jende asko ezagutzea; gainera oso ondo pasatzen dut.

• **Eta kendu?**

Hurrengo egunean norgehiagoka duzunean asteburuetan ezin ateratzea...; gehiago zaindu behar duzu, baina hala eta guztiz ere merezi du.

• **Ametsik bai?**

Piloa daude, baina ametsak ametsak dira, horregatik egin dudana eta entrenatzen dudanarekin, momentuz da egin dezakedana, eta pozik nago ondo bateratzen dudalako...



MEMBRANO KARBONAK
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALKALINA

CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE

CEGASA
INTERNATIONAL
TOP ENERGY
ALKALINE

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA
Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA** HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



"Eskurik ez eskuan"

Patxi Zubizarreta



Hamaikagarrenean abiatu ahal izan zuen autoaren motorra. Azkenean. Baina artaga zegoen, deseroso. Beharbada horretaz ohartu zelako jarri zion neskak eskua eskua-ren gainean, abiadura palanka bigarrenera eraman zuenean. Hala ere, neskaren haragi hotzaren ukidurak are gehiago asalatu zuen. Hotzikara gorputz osoan.

Hirugarren martxa sartu, eta azelaragailua gogotsu zapaltzerakoan, barneko ispiluan begiratu zuen. Victor ikusi zuen, berari begira, eta honek ere irribarre egin zion. Neskarena ez bezalako irribarre,

ezpainen nekez eutsia, abaildua, behartua.

Neskari begiratu zion hurrena eta honek, eskua eskutik bereizi gabe, ohiko irribarre lasaigarria eskaini zion. Baina begirada galdua zuen neskak. Eta irribarre hura berarentzat nahiz Victorrentzat izan zitekeela pentsatu zuen gidariak.

Hiribarnetik hurbilago, eta semaforoak ugariago. Farolak ugaltzenago. Hala ere, argitasunak ez zizkion arestiko kale urrunak sortarazitako itzalak uxatu. Gorria. Bigarrena. Palanka loka. Eskua eskuan artean. Epelagoa oraingoan. Eta neskaren eskua, begirada

galdua ez bezala, berarentzat zen inondik ere. Kondoia amaitu zitzaizkiola oroitarazi zion aieru bat.

-Merde! -atera zaio.

-Zerbait esan duzu? -galdegin dio neskak.

Ezezkoa egin zuen buruaz, berriro atzerantza begiratu bitartean. Berde. Lehenengoa, bigarrena, hirugarrena. Eta laugarrena sartzen ari zela, ordu arte erreparatu gabeko auto bat agertu zitzaion barneko ispiluan. Begirada ispilutik bereizi gabe, Victorrek eskuetan zerman maleta ttikia begiz jo zuen. Gero, begirada neskarengana zuzendu, eta hark irribarre

egin zion. Artega zegoen, deseroso, eta beharbada horrexegatik desiratu zuen neskaren irribarrea bere gorputzean.

Behar izaten denean, goardiako farmazia norberaren auzunetik urrun baino urrunago egon ohi dela pentsatu zuen. Baina une hartan gurutze berde ñirñirkaria nabarmendu zen. Zakar balaztatu, eta eskuinera egin zuen. Victorrek neskari begiratu zion. Eskua eskuaren gainetik desagertu zen.

-Oraintxe nator -esan du autotik jaitsi aurretik. Eta atsegin izan zuen behingoz neskak bezala jokatzeari, hau da, bat-batean, derrepentean. Materiala tabernaren batean, farmazia itxietako kanpoaldeko makinetan lortzen ahal zuen, baina nork daki, amaituak baldin badira, makina matxuratua baldin badago. Seguru jokatu nahi izan zuen. Seguru.

Luze gabe autoan zen. Kondoien poltsa atearen beheko kaxoian gorde zuen. Neskari keinu azkar batez erakustekotan egon zen, Victorren oharkabea, baina ez zuen halakorik egin. Batek zekien. Eta lehen ekarritako abenidara itzultzearekin batera, lehenagoko auto berbera bistatu zuen, ez urrun ez hurbil. Auto berdea. Barneko ispiluko Victorrek ez zion irribarrerik egin.

Esku barrenak izerditu egin zitzaizkion. Neskaren eskua desiratu zuen orduan. Artega zegoen,

deseroso. Bistan zen. Beharbada horretaz ohartu zelako neskak musika aparailua piztu zuen. Alan Stivell-en harpa nagusitu zen autoaren isiltasunean. *Au-delà des mots*. Gidariak irri firfira bat egin zuen. Aurreko batean, autoan, musika berberarekin, lurri-na kristaletan eta larru azalean. Baina, berriro ere bat-batean, derrepentean, azeleragailua bortitz zapaldu, eta ziztuan irten zen. Erre beharrean. Laugarrena. Abiadura palankan, eskurik ez eskuan. Ispiluan, Victorrek maletari gogor eusten. Eta atzean, gero eta azkarrago hura ere, auto berdea.

Ziztuan jarraitu dute. Ehun metro eskasera jaitzen ari diren barrerak gainditu ahal izan dituzte. Auto berdea atzean utzi. Zakar aurreratu duten beste auto bateko gidariak bozina jo die.

-Barkatu, baina barrere-kiko lehia haur denborako fihazio bat da -esan du-. Jaitsi aurretik pasatzen banaiz, seinale on...

Victor, iruzkinik egin gabe, lehenengoz mintzatu da:

-Hementxe bertan utz nazakezu. Hemendik oso hurbil daukat-amaitu du, hurbil zer daukan zehaztu gabe.

Hirugarrena. Oso hurbil. Bigarrena. Handik hurbil tren geltokia dagoela pentsatu du. Balaztada ttiki bat eta palanka loka. Neska aurrera begira dago. Pentsakor. Ez bat eta ez bi,

autotik irten da Victorren atzetik. Gidariak ez du ikusi Victorrek eskuaz egin dion agur keinua. Gidariak ezin ditu ikusi, ispiluek ere ez. Baina laster da neska auto barnean. Victor, ostera, ilunbetan galdu da, eta gidariak zalantza egingo luke haren existentziaz baldin eta autoan izerdi usain sarkorra utzi izan ez balu, baldin eta neskak esan ez balio: "Zuri esker-rak emateko esan dit". Eta gidariak arestiko kale iluna han amaitzen zela sentitu du.

Lehenengoa. Bigarrena. Barneko ispilutik begira, atzeko eserlekuetan Victorren maleta ikusi du. Gizona han egon izanaren beste arrasto bat. Neskari esatekotan dagoela, barneko ispilua pantaila ttikian auto bat begitatu du. Oraindik urrun samar dago eta ezin dio koloreari antzeman. Gauari ere ezin antzeman diezaiokeen gisan. Hirugarrena. Neskak eskurik ez eskuan. Seguru-enik irribarrerik ez ezpainenetan. Eta Alan Stivell-en musika lasaia autoan.

LOURDES OÑEDERRAK
emian zion hasiera abendu-
duko alean istorio kateatu
honi "Neska haren iriba-
rrea" izenburuaz; orain-
goan PATXI
ZUBIZARRETAren jarrai-
pena dugu, eta otsaileko
alean, IBAN ZALDUAK
helduko dio kateari...

© Patxi Zubizarreta eta Geu aldizkaria

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Zure denda erotikoa

SEX



**PITILIN
GORRI**



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883



GASTEIZ

ARANBIZKARRA ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Xabier taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztozile kalea (KUTXI), 23

INMIGRAZIOARI AURRE EGITEKO SORTURIKO GUNE PERIFERIKOAK. Adurtza, Ariznabarra eta Zaramaga auzoak

Unai Gartzia, historiagilea

Honakoak gasteiztar orori hurbilekoa zaion historia txiki bat izan nahi du, gertuko auzoa ezagutarazi eta auzotasunaren ideia garatu nahi duena. Hurbilekoa zaigun historia-lana egin nahi den heinean, alboratuak izan dira ohiko iturri bibliografiko zein arxibistikoak. Ahozko historia izango da, beraz, ondorengo lerroen garapenerako erabilitako iturri nagusia eta ikerketa lan orokorraren ardatza.

Ikuspuntu historikoari dagokionean, Ariznabarra, Adurtza eta Zaramaga auzoen azterketak Gasteizko historian gertatu den hazkunde demografikorik inportanteena ezagutzen lagunduko digu, hazkunde horren arrazoi eta ondorioetan murgilduz.

Lanaren ikuspuntu sozialak, aldiz, auzo hauetako bizimoduaren nondik norakoak ulertzea eraman nahi gaitu.

HAZKUNDE EKONOMIKOA ETA INDUSTRIALIZAZIOA

XX. mendearen bigarren erdialdearen haserarekin batera, Gasteizek izugarritzko hazkundera bizi izango du. Hazkunde hau, bigarren sektoreak jarraituriko garapenarekin dago estuki harremandua, industrializazio prozesuak hazkunde horren oinarriak ezarriko baititu. 1956 eta 1975 bitartean kontzentratuko da batez ere bilakaera industrialia, urte horietako hazkunde demografikoa ere izugarria izanik.

50. hamarkada aurretik Gasteizen topatzen dugun industria ohitura handikoa eta artisautza munduarekin harremandurikoa izango da. Ohitura honen adibide, euren sorrera XIX. mendean duten hainbat enpresarekin topatuko gara, garai horietan energi iturri gisa lurrina erabiliz, eta lana esku-tresnen bitartez egingo zutenak. Sasiartisau enpresa hauen artean, Heraclio Fournier naipegilea (1868), Murga eta Etxebeste kanpaigileak (1850), Bonilla altzariak, eta abarren modukoak aurki ditza-kegu. Badira ere XX. mende hasieran sortu eta energia elektrikoa zerabilten zenbait metalurgi industria, hala nola Aranzabal, Ajuria edo eta Sierras Alavesas.

Azken finean, denak izango dira artisautzarekin harremandurikoak eta batere modernitate-rik gabekoak, Gasteizek mundu tradizionala izaten jarrai dezan

lagunduko duten familia-enpresa txikiak, alegia.

1950 etik aurrera biziko du Gasteizek bere lehenengo industrializazio indartsua. Hazkunde ekonomiko-industrial honi erantzuna eman nahi baldin badiogu, barne zein kanpoko hainbat eragileri erreparratu beharko diegu:

- Kanpo eragileak: 50. hamarkadan zehar Mendebaldeko Europako herriek energi iturrien merketzean oinarrituriko industrializazio eredu berri bati ekingo diote, euren merkatuak herrialde zein alor ezberdinetara zabalduz. Testuinguru honetan, Espainiar estatuak bere politika autarkikoa alboratuko du pixkanaka-pixkanaka eta 1959ko Estabilizazio Planaren kaleratzearekin nazioarteko egoera berriari hobeto egokitzen zaion politika ekonomiko berriari ekingo dio. Politika honek, liberalizazio ekonomikoak bultzatuko ditu industriaren garapenerako, besteak beste, atzerriko kapitalari sarrera emanez.

- Euskal Herri mailako eragileak: Bizkaia eta Gipuzkoak jada ez zuten ez industria sortu, ez honen inguruan populazioa ezartzeko lur nahiko zein merkerik. Arazo honen aurrean eta geroago ikusiko ditugun eragileei jarraituz, bi probintzietako enpresariak Gasteizera joko dute euren lantegi berriak zabaltzera (batez ere Gipuzkoako Debaren arrotik).

- Barne eragileak:

- Gune fisikoak: Gasteiz lautada zabal baten bihotzean dago kokatua eta bere inguruan industriak ezartzeko hainbat lursail ditu. Gasteizen, beraz, Gipuzkoa eta Bizkaian gertatzen denaren aurkakoa ematen da. Lur honi guztiari merkea dela gehitzen baldin badiogu, iparraldeko enpresarietaz are eta fruitu erakar-garriagoa izango da Gasteiz hiria.

- Kokapen geografikoa: Inguruko hiriburu eta industri guneetatik hurbil egoteak (Bilbo, 66 km; Pasaia-Oretea, 120 km; Arrasate, 33 km; Bergara, 44 km, Ermua-Eibar-Elgoibar, 60-65 km) eta gune horiekin komunikabideak ugariak izateak (hainbat errepide, Renferen trenbidea, Vasco-Navarroa, etab.) produktuen garraioa erraztu eta merketu egingo du.

- Gunearen azpiegitura garatua: Industriara bideraturiko lurrek erreka zein ibai ugari dute inguruan, baita energia eta errepide sare garrantzitsua ere. Azpiegitura garatuaren adibide, Gamarran Udalak 50. hamarkadan Citroën auto enpresarentzat ekipaturiko lursailak dauzkagu. Azken orduan, enpresak Gasteizen lantegirik ez jartzea erabaki zuen, lur ekipatu horiek bestelako enpresen eskuetan oso prezio onean gelditu zirelarik.

- Erakundeek jokaturiko papera: Udalak zein Arabako Foru Aldundiak jokaturiko papera ezinbestekoa izango da industrializazio prozesua ulertu ahal izateko. Aldundiak Kontzertu ekonomikoak dakarren autonomia aprobetxatu eta laguntza ekonomikoak zein onura fiskalak eskainiko dizkie enpresei 40. hamarkadatik aurrera euren lantegiak bertan ezartzeko. Udalak, lursoru industrialia prestatzeko filosofia bati ekingo dio. Filosofia honen ondorioz lehenengo industri hirigintzatze kontzentratuak aurkituko ditugu Gasteizen: Gamarra-Betoño (1957), Gamarra-Arriaga, Olarizu, Ali-Gobeo-Urtiasolo, Jundiz (denetan berriena, 1974 urteaz geroztikoa baita).

HAZKUNDE DEMOGRAFIKOA ETA AUZO BERRIEN SORRERA

25 urte eskasetan, 1950-1975, Gasteiz, 52.206 biztanle izatetik, 173.137 izatera pasako da. Epe honetan Euskal Herriak bizitzen duen hazkunderik handiena pairatuko du, alegia; 100en gainean, 331ko indizean haziko da, Bilbo 137koan, Iruñea 228koan eta Donostia 149koan haziko direlarik.

Inmigrazioa izango da, inolako zalantzarik gabe, hazkunde garrantzitsu honen arrazoi eta aipaturiko industrializazioaren ondorio nagusienetakoa. Espainiar estatutik etorritako inmigrazioa izango da Gasteizera hurbilduko dena.

1960-70 BITARTEAN ETORRITAKO ETORKINEN AURREKO BIZITOKIA

Koadroak erakusten digun moduan,

1960an bizi ziren lekua	Etorkinak	Etorritakoen artean (%)	Populazio orokorraren %
Araba	6.277	19,02	6,01
Euskal Herria	6.535	19,80	6,26
Galiza-Asturias	1.329	4,02	1,27
Gaztela-Leon	11.508	34,88	11,03
Gaztela Berria	937	2,84	0,89
Extremadura	3.067	9,29	2,94
Andaluzia	1.699	5,14	1,62
Beste lurralde batzuk	1.639	4,93	1,55
OROTARA	32.991	99,92	24,10

bereziki garrantzitsua da Gaztela-Leondik etorritakoen kopurua. Andaluzia zein Extremadurako kasuek ere aipamen berezia merezi dute. Etorkin hauei, 50. hamarkada osoan zehar zein 70.etik aurrera etorritakoak gehitzen baldin badizkiegu, urte horietatik aurrerako Gasteizen irudi ezin hobea lortuko dugu, nagusiki, etorkinez osaturiko Gasteiz baten irudia hain zuzen ere.

Urte hauetako populazio hazkunde izugarriak egoera berria ekarriko du Gasteizera eta premiazkoa suertatuko da hirigune berri baten eraikitzea. Gauzak horrela, lehenengo langile auzoen eraikitzeari ekingo zaio 50. hamarkadaren amaieratik aurrera. Gasteiz hiriaren hazkunde berriaren lehenengo belaunaldiari ekingo zaio hain zuzen. Auzo berrien lehenengo belaunaldi honek "txabolismoa" ekiditzea izango du helburutzat hein handi batean, eta hortaz, apenas ordenaziorik gabe, era anarkikoan, lur merkeenetan (periferietan hain justu), industriguneetatik gertu eta material merkeekin eraikiko dira etxebizitzak.

Lehenengo belaunaldi honetan, jarraian aztertuko ditugun hiru auzoak eraikiko dira:

Adurtza auzoa

Etimologikoki, hozkailu edo eta sasitza dira Adurtza izenari ematen zaizkion interpretazioak.

Auzo modernoa Olarizuko industrigunearen inguruan 1956-1957. urteetatik aurrera zabaltzen den arren, Adurtza askosaz ere lehenagoko herrirka bat da, jadanik Donemiliagako agirian ('Reja de San Millán') agertzen baita. Erdi Arotik Adurtzaha edo eta Adurtzaa izenez ezaguna izan da 1258az geroztik Gasteizko auzune bat den herrirka hau. Urte honetan, Alfontso X.ak Gasteizi eskaini zizkion gaur egungo Andre Maria Zuria eta San Cristobal bitarteko lurak, herrirkak bere nolabaiteko independentzia galduz.

Auzo berrietatik Adurtza izango da

denetan kolektiboena eta biztanleen partehartzerik handiena erakusten duena. Izaera hau, beharbada, auzoa kooperatiba batek altxarazi zuelako gertatu da. Apezpikutzaren Idazkaritza orokorrak egin zuen auzoaren planifikazioa, "Mundo Mejor" kooperatibaren bitartez, nahiz eta Aurrezki Kutxak eta inizatiba pribatuak ere partehartzerik izan zuten.

Auzoaren jaiotzarekin batera, biztanlegoari hurbilekoak suertatzen zaizkion lehenengo erakundeak sortuko dira, aipatu kolektibotasunaren islada. Honela, auzoa altxatu ahala, langileentzako egote eta emakume langileentzako egote modukoak eraikiko dira. 1960. urtean Adurtzako Gizarte Etxea jaioko da, auzokideen bilgune eta gizarte ekintza ezberdinen antolatzaile eta koordinatzaile. Gasteizko hainbat gizarte-jardueratan aitzindari den elkarte hau, desoroso suertatzen zaio garaiko botereari eta 65ean egindako aurkako jazarpen kanpaina batekin batera, hainbat atxiloteta gertatu dira elkarte honetan lan egiten zuten bolondresen artean. Elkarrekin gaur egun badu presentziarik auzoan, hainbat jarduera antolatzen jarraitzen duelarik. Besteak beste, euskara tailerrak eskaini egiten dira, zeintzuetan auzora etorritako zenbait etorkinek ere parte hartzen duten, integrazio zabal baten adibide.

Ariznabarra auzoa

Haritz ñabarra toponimikoaren ondoriozkoa da auzoaren izena, galtzaden bidea izenez ere ezaguna. Ziurrenik, hainbat herritar zeramaten galtzaden bidegurutze honetan (bertan batzen dira Armentia, Ehari, Zuhatsu zein hegomen-debalderako bideak), izenak erakusten digun moduko zuhaitza edota basoa zeuden antzina.

1956. urtetik aurrera hasten da gaur egun "auzo zaharra" izenez ezagutzen

dena eraikitzen. Zentrotik kilometro eta erdira eraikiko da auzoa, hegomen-debaldeko lur hauetan sakabanatuak dauden industria txikietatik gertu (bertan ez dago, hortaz, industria-gune inportanterik). "Txabolismoa" ekiditzeko altxatutako auzoen adibide ona da, lur merke eta urrunduetan egoteaz gain, material eska-sekin eraikiko baitira etxebizitza bloke guztiak. Etxebizitza hauen eraikitzea, ardura guztiz pribatua izango da, Ugara enpresak egingo baititu lan guztiak.

Auzoko etxebizitzaren merketasuna, -etxe guztiak 100.000 pezeta inguruan saltzen dira-, izango da etorkinak ona ekartzeko arrazoia nagusia. Hala ere, merke izate honek arazo ugari ekarriko ditu, besteak beste, auzoak ez baitu bate-re azpiegiturarik izango: hasiera batean ez dago osasun zerbitzurik, eskolarik, garraiorik, garbiketa zerbitzurik, dendarik...

1975. urtera arte auzo "pirata" izango da Ariznabarra, ordu arte ez baitu jasoko Etxebizitza Ministeritzarengandik auzo kontsiderazioa. Urte honetatik aurrera hasiko da auzoaren bigarren hazkundea. Auzoak, bere alderik garaienera ikusiko ditu etxeak zabaltzen, mendebaldean dauden 29 eta 62. poligonoetara hain zuzen ere. 70. hamarkada amaierako krisiak eraginik izango du eraikuntza berri hauetan, bertan behera gelditu beharko direlarik urte askoren buruan. Krisiak, paisaje mota berri eta berezia ekarriko dio auzoari, etxebizitza eskeletoak auzoaren irudi bilakatuz hamar urte luzeren buruan.

Zaramaga auzoa

Erakunde ofizialek proposaturiko langile auzoen eredua da, garai bateko belardi hezeetan (hori da Zaramaga hitzaren esanahia) 1957tik aurrera eraikitakoa. Sasipublikoa izateak ondorio positiboak ekarriko dizkio auzoari, orain arte aipaturikoetatik, berauk izango baitu azpiegiturarik garatuena. Laster bihurtuko da Gasteiz guztiko auzorik handien, bai populazioari dagokionean eta baita esparru fisikoari zein etxeen tamainari dagokionean ere.

Langileriaren sinbolo bihurtuko da Gamarra-Betoño gune industrialaren inguruan jaiotako auzoa, batez ere 1976ko 'martxoak 3'an gertatutakoaren ostean. Jakin badakigu, egun horretako asteazken batez, poliziak 5 langile erahil zituela San Frantzisko elizan.

© Unai Gartzia eta Geu aldizkaria



"18591372-N"

josune velez de mendizabal

argazkiak: edorta sanz

Pepo Salazarrek publiko eta pribatua kolokan jartzen du Trayecto Galerian


"Sarabande" izeneko artelanarekin Pepo Salazar (Gasteiz, 1972) aurten Gure Artea sarietan irabazle izan da, Jon Mikel Euba eta Jose Ramon Amondarainekin batera. Argazki handi batek ETAK Lakuntzan dagoen Matraka diskotekaren kontrako erasoak erakusten du; egunkarietako informazio grafikoa gogora ekartzen digun artelan honekin irabazi du Pepok hain zuzen ere leihaketa hau. Egun, berriz, gasteiztarraren azken lana Trayecto Galerian ikus daiteke urtarilaren 25era bitartera.

Peporen artelanez mezua dute helburu nagusi. Ikuslegoaren ezaxola apurtu nahiaz gazte honek gaur egungo errealitatea eta gizartea hartzen ditu abiapuntutzat. Hala nola, gaur-

kotasuna izan da Gure Artea 2002koan epaimahaiak saritu ezauzgarritako bat. "Sarabande argazkian edertasuna alde batera uzten dut eta hartzailegoarekiko komunikazioak lehentasuna du", azaltzen du egileak.

Art Lisboan (Portugalen), Arcon (Madrilen) eta ArtForum (Berlinen) parte hartu duen gaztearen nondik norakoak ikusteko parada badugu Gasteizen, abenduan inauguratu eta urtarilaren 25era bitartera iraungo duen "18591372-N" bere azken lana baitago Trayecto Galerian (Ramiro Maeztu, 10) erakusgai. Bere identifikatze zenbakiekin jolastuz Pepok lau oinarri ditu nagusi pribatu eta publikotasunaren kontzeptuen arteko lehiak gauzatzen den erakusketa

honetan. Arrosaz margoturiko murrak handi batean zenbakiz beteriko zerrenda agertzen da, "nire zenbaki sekretuak" barre egiten du; ondoren musika taldeek kontzertuetan eraman ohi dituzten antzeko kamisetak beltzean bere curriculumak agertzen du artistak; badira ere argi fokoak irudikatzen dituzten hiru marrazki; azkenik, sei minutuko bideo-emanaldiak Pepo suitzalgailuak irekitzen ari dela erakusten du. "Modu ezberdin hauekin erakutsi nahi izan dudana izan da publiko eta pribatuaren arteko lerroa zeharo mehea dela", aipatzen du egileak, "artearen munduaren kontzeptu bi hauen arteko figura ahulena, aldiz, artista bera da".



Pepo Salazar:

“Edozein jokamolde ideologiko ezaugarri deserosotzat hartzen da”

• Aurtengo Gure Artea sarietan irabazleatariko bat izan da Pepo Salazar; aurreko edizioetan zortea frogatu bai?, zergatik pentsatzen duzu epaimahaiak zure artelana hautatu zuela?

Nahiz eta aurreko edizioetan talde lanekin aurkeztu, hau da bakarka egin dudana lehengo saialdia. Epaiari dagokionez, suposatzen

Naturaren isladak

Egun hauetan, mihura (*Viscum album*) perla moduko fruituekin apaintzen da. Birigarroentzako (*Turdus philomelos*) egundoko elikagaia.



12A/02
12

dut epaimahaiak kontuan izan dituen baldintza eta ezaugarrien artean, kalitatea, artegileen aktualitatea,... izan direla, besteak beste. Baina hau agian suposaturiko zerbait besterik ez da...

• **"Sarabande" izeneko argazki handian Lakuntzan zegoen Matraka diskotekaren ETaren aurkako eraso ikus daiteke, zer kontatzen duzu bertan?**

Beharbada, irakurketa beste zentzu batean egin beharko litzateke... Gertaera bat besterik ez da bertan ikusten dena. Arlo artistikoan eginiko ironia burutsua da; ikusgarritasuna, modak eta igorlearen garapenean erabilitako oinarriak agertzen dira bertan: mezuak, propaganda, etab.

• **Gure Artea sariak Estatu espainoleko hainbat arte zentrotan erakustea dakar; euren artean Artium Museo Garikidean egoteko aukera ere agertzen da. Egun Gasteizko kulturaren bereizgarri bihurtu den honetan egoteak asko al dakar zu bezalako artista-rentzat?**

Ez bereziki. Garrantzitsua da bere neurrian, hau da, curriculum mailan. Honetaz gain, bakarkako erakusketaz gain, egun estatuan nahiz estatutik kanpo aurkezteko egitasmo ezberdinekin ari naiz lanean.

• **Pepo Salazarrek gizartearen aldaketarekin bat**

egiten duen artista aldarrikatzen du; arlo honi helduz nola agertzen da zure borondatea artelanetan?


Artista izatea edota ekintza artistikoa garatzearen ekimena nire politika gisa uler zitekeen ekintza besterik ez da. Ni nagoen arlo ideologikoari gertuko tradizioa modu zehatz eta argi batean gizartearen eragina izango lukeen izendapen eta urratzeko funtzioztat ulertzen dut. Gainera, eta egun bizi dugun atzerapen ideologiko eta politikoa dela eta, edozein jokamolde ideologiko ezaugarri deserosotzat hartzen da.

• **Zure komunikatzeko gaitasunean edukia eta formaren portzentajearekin jolasten duzu, batzuekin besteaz zer-nolako konposaketa daukate zure laneak?**

Era berean bata zein bestea garrantzitsutzat jotzen ditut. Gaur egungo gizarteak ez baititu soilik eskura gailu ideologikoak, baizik eta itxura ere; izan ere, itxura mezuaren igorketaren eraginkortasunaren portzentajearen kokatzen baita.

• **Elementu ironikoak eta umorezkoak zure artearen ezaugarri dira, nahitaezkoa daukazu baldintza?**

Itxurazko arloari dagokionean garrantzi handia daukan zerbait da. Umorea eraginkortasun handiko kritika bidea izan da beti.



Confecciones Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

EYSKAL LABELA LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia
Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

URTARRILA

7

· Parral, astearteetako ekitaldia. 20.30etan: EL CLUB DE LENNY (umorezko gau-jaia)
· GAUEKOAK. EUSKARAZKO TAILERRAK: Aldabe gizarte etxean, 22.00etatik 0.00etara.

9

· HAMAR MEZU ETA DEI BAT
UNAX UGALDE, MIKEL URDANGARIN eta PATXI ZUBIZARRETA
Gauekoak eta Geu elkartearen eskutik
Principal antzokia, 20.30etan

10

· Gauekoak.
Euskarazko tailerra: neskontzako autodefentsa ikastaroa (doan). Ordua: 22.00etatik 0.00etara.



· Erne Gauekoak-en euskarazko tailerretarako deialdia: izena emateko eguna abenduaren 20an ireki zen; tailerraren egunera bertara arte irekia. Plaza mugatuak. Tailerren hasiera: urtarrilaren 10etik aurrera eta otsailaren 7tik aurrera. Ordua: 22.00etatik 0.00etara.

Urtarrilean, neskontzako autodefentsa ikastaroa, urtarrilean, eta otsailean: perkusioa, aeroboxing eta buzea. Ekintza irekiak: sukaldaritza, abalorioak, txalaparta.


www.gaukoak.org 945215161

gaukoak@gaukoak.org



12

· I. R. L. scopes & scapes erakusketa. Montehermoso kulturunean, hilaren 12ra arte



14

· Parral, astearteetako ekitaldia. 20.30etan: Eneko Etchebarrietaren munduan zeharreko bidaia. Filmin-emanaldia (Geuren 10. Urteurrena)

17

· Gauekoak.
Euskarazko tailerra: neskontzako autodefentsa ikastaroa (doan). Ordua: 22.00etatik 0.00etara.

21

· Parral, astearteetako ekitaldia. 20.30etan: CAPSULA pop&rock taldea



22

· Geu elkartearen eskutik: FREEKKUE liburuaren (MAN-TXUT bilduma) aurkezpena: Kike Amonarriz, Asisko Urmeneta... Aldabe Gizarte etxean, 18.00etan.

23

· Hiri-ingurunea eta OSASUNA (faasp, osasun publikoko ikasleen elkarten federazioa): nazioarteko 7. Biltzarra (hilaren 23tik 25era). Informazioa: 945122034 (congreso@lautso.com)



24

· Gauekoak.
Euskarazko tailerra: neskontzako autodefentsa ikastaroa (doan). Ordua: 22.00etatik 0.00etara.



28

· Parral, astearteetako ekitaldia. 20.30etan: Antzerkia, KUKUBASAR taldearekin (Kapin-kapon, antzezlanak)

31

· Gauekoak.
Euskarazko tailerra: neskontzako autodefentsa ikastaroa (doan). Ordua: 22.00etatik 0.00etara.

· Hikaateneo-k urtarrilerako antolatutako agenda ere ez ahaztu.

bidaiak

Lerro beltza

testua eta argazkiak: xabier errasti 'jerras'
(geu-k itzulitako testua)

Ororen gainetik esan behar dut lurretik bidaiatzea atsegin dudala. Trenera ohitu zara, bere musikara, bere mugimendura, bizitza igarotzen ikustera zine pantaila bailitzan, bakarrik eserita baina eserlekua igo eta jaisten diren lagunekin partekatuz, bidaiak zuretzat hautatutako bidaideekin, euren bizitzen konplize, lagun min perfektu, apika maitale une batez.

Baina ikusleaz gain bakoitza ikusten diharduen filmaren aktore ere bilakatzen da. Sentsazio bitxia da, ispluaren bi aldeetara egon ahal izatea: izango ote dugu bidaiariok eskizofrenia gradu bat edo beste?

Horretaz jabetuta egoteak bidaia bizikiago biziarazten dizu, jakinda gidoia idatzita gabe dagoela, momentu bakoitzean, geltoki bakoitzeko, zure saioa inprobisatu beharko duzula inork MOZTU! oihukatzeako aukera egon barik. Hartze bakoitzak ona behar du izan.

Bizitzaren antzeko zerbait. Pentsa genezake bidaia bakoitza beste bizitza bat dela: norbera egoera desberdinetan, askotariko jendeak, beste denbora eta gune batean... Eta trenak darrai, bizitzak darrai. Gasteiz-Erroma, Gasteiz-Lisboa, Gasteiz-Istanbul dira ene oroimenak gogoan dituen tarteetako batzuk. Amsterdamerako bidean lagun on batekin egin bidaia hartan:

Zerbait jan genuen andeneko jarleku hotz batean, teilape azpian; euriak metrailatzen zuen.


Gau umela zen. Beirez bestaldean, gure atzean, sendi batzuk kartara afaltzen ari ziren Intxaurrak eta gazta marraskatu bitartean gizon hura hurbildu zen, gure ondoan pausatuz Zaborran miatu zuen, eta ulertu ez genuen zerbait murmurikatuz, aurrera jarraitu zuen esanez:
bon appetit!

Nire bidaietan beti daude trenen istorioak. Mapetan lerro beltza bilatu eta eraman nazala. Bukatzen den arte jarraitu ohi diot, beste aitzakiarik gabe, egunez eta gauez. Eraman nazala.

Basamortuan barrentzen diren trenak, ibai zahar baten ondoan bidaiatzen duten trenak, lurraren ahutzak irekitzen dituzten trenak, etengabe bidaitzera gonbidatzen nauten ene gogoetaren uretatik nabigatzen duten trenak.

Geltoki gainezkatuak. Hiri bihurturiko andenek behar dena dute, bidaiariak, beren trenera igo artean egunak eta egunak zain daudenak, etxean legez senti daitezen: jan eta lo egiten dute, txukuntzen dira eta ondo pasatzen dute bizitzaz beteriko euren ekipajeekin eserita...

...harea-zirimolek ibilitako hutsik dauden bagoiak ezerezaren erdian agertzen dira basamortuaren errailetara bidaia



bat egiteko, hor zergatik dauden inork ez dakien burdin puruzko mendi batzuekin topatzeko. Bidaia luzea, gogorra izango da, jendeak badaki...

Bien bitartean, geltokira joaten segituko dut neguko arratsaldeetan. Sekula gelditzen ez diren trenak pasatzen ikusiko ditut, hurrengo irteera iragartzen duen ahotsa entzungo dut, berandu heltzen diren bidaztien aurpegian presa sentituko dut. Andenetik euren bizitza paseatzen duten zaharrekintzatuko naiz, imajinatuko dut "Estrella" hartzen dudala, gauerdian, inork ikusten ez nauenean.

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

HEGOALDE
Euskalategia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

BEIRATE
ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER
"Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 - Tfnoa: 945 13 33 59

>GEU





10 urte
euskara
euskal kultura
han-hemenka
begirunea
prestigioa
duintasuna

gogoan izan

10. Urteurreneko azken ekitaldia

eneko etxebarrieta bidaiariaren

filmina-emanaldia

(Gasteiztik munduari buelta bizikletaz; 4 urteko bizipenak, 1999-2002)

Hilaren 14an, asteartea, parral tabernan, 20.30etan

geurekin mendira
zatoz geurekin mendira!

Urtarrilaren 19an

HORNILLO (996) eta SAN CRISTÓBAL (964)

Informazioa: 945266812 (Maite)

Irteera tokia: Lovaina plazan, goizeko 9.00etan

(Kotxea baldin baduzu, eraman)

mintzalagun egitasmoa

Euskaraz mintzatzeko, jende berria ezagutzeko, ondo pasatzeko... Astindu lotsa eta deitu elkartera (945222153-Josune). Zenbat eta lagun gehiago, orduan eta talde desberdin gehiago! Egun abian dagoen taldea ostegunetan biltzen da,... Deitu eta emango dizugu informazioa.

lan poltsa

GEU elkartearen monitore euskaldunen lan-poltsa osatzen ari gara ikasturte honetan proposamen berrietan lan egin ahal izateko.

Bidali curriculum txiki bat postaz edo e-postaz

(geuelkarte@grn.es)

Arduraduna: Josune

geu azoka

deitu edo idatzi zure iragar-
kitxoa argitaratzeko!

(iragarkiak aiez ale berritu
behar dira)

-Salmentak, alokairuak

-Umeak, etxekolanak, eskola
partikularrak, lana

mahaia

Hilero Geu aldizkaria-ren
mahaia dugu erdi aroko hiri-
guneko azokan, arkupeetan,
gasteiztarrei gure proiektua
ezagutarazteko. Hurrengo
zita: otsailaren 1ean.

kangeuroak

Umeak zaintzeko Kangeuroen
zerrenda osatzen jarraitzen dugu.
Zerrenda honetan agertu nahiez
gero eman zure izena eta telefo-
noa eta zehaztu zure ordutegia
(egun osoz, goizez, arratsaldez,
gauez, asteburuak): 945222153 /
geugaste@grn.es (horrela norbai-
tek KanGeuro baten beharra
badu hemen du aukera zurekin
zuzenean kontaktuan jartzeko)

• Ordutegi guztiak

Estitxu. 651706739

Maria. 656745969

Miryam. 656761588

• Arratsaldez

Patxi. 652743205

• Gauez

Nerea. 658733934

• Asteburuak

Nagore. 945281124

Marta. 606415235

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ametsak


Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herrera nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43

ARTE ETA LANBIDE ESKOLA



Egilea:
Monica Castillo Saez
Pinturako lehen kurtsoko
ikaslea.
Teknika: olio-pintura.
Testua (geu aldizkariak
itzulia):
Monica Castillo Saez



"Niretzat pintura ene sentimenduak askatzea eta banakoki azaltzea ahalbidetzen didan bidea da.

Kolorea eta pintzelkadaren bitartez behar adierazkor batzuk gara ditzaket, amaitu gabeko historia eszenatoki batean, mihisean, irudikatu, ikuslea itaunarekin utziz, nahiz eta jakin erantzun bakoitzak beste galdera bat dakarrela.

Pintura ideia, sentimenduak, zirrara, adierazpena, irrika, askatasuna dira; baina nahi eta egiten duzun horrek kalitatea ote dueneko zalantzak dakarkizun ziurtasun eza inoiz ezin gaindi dezakezu.

Begirada hutsa kolorez betetzea, zure koloreaz, eta denboran geldiarazteko zure baitan harrapatzea.

Obra hauetan lortzen saiatu naizena da pintzelkaden musikaren eta koloreen magiaren bidez, mugimendua sortzea, zeina irudiaren gune batean jaiotzen baita eta beretik hedatuz doa, ikuslea blaitu eta koloreen adierazpen honen aurrean geldo gera ez dadin, sentimenduen borroka batera iritsiz."



EGUNEAN-EGUNEAN BIZITZEN IKASTEN DUGU ELKARREKIN

Koldo Mitxelenan ikasten den lehen gauza da euskara Euskal Herriko ezaugarririk behinena dela. Horregatik, mundu zabalean hainbat kultura galtzeko arriskuan dauden garaiotan buru-belarri jarduten gara gure hizkuntza berreskuratzeko asmoz. Euskaltasunetik begiratzen diogu munduari

KM
KOLDO MITXELENA
INSTITUTUA

DBH / ESO
Behenafarroa z/g Tlf. 945 26 22 33
www.koldomitxelena.net